


eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

LETREN
FAKULTATEA
FACULTAD
DE LETRAS

DOVLATOVEN *KONPROMISOA*
ELEBERRIAREN EUSKARAZKO ITZULPENA:
SOBIETAR BATASUNA EUSKAL
IRAKURLEAREN IKUSPEGITIK IKUSITA

GRADU AMAIERAKO LANA

Itzulpengintza eta Interpretazioko Gradua

Ikasketa Klasikoak Saila: Eslaviar Ikasketak

Ikaslea: Gaizka Madejon Cambra

Tutorea: Iker Sancho Insausti

Ikasturtea: 2021/2022

ABSTRACT

Lan honetan Dovlatoven *Konpromisoa* eleberrian topatzen diren erreferentzia kulturalen euskarazko itzulpena aztertuko dugu. Horretarako, corpusgintzan oinarritutako metodologiari jarraikiz, adibideak corpus elebidun batean (RU-EU) bildu eta sailkatu ditugu, itzultzailearen lana aztertu ahal izateko.

Lan honen helburu nagusia, euskal irakurleak eleberriaren euskarazko itzulpena irakurtzerakoan Sobietar Batasunarekiko jasotzen duen ikuspegia ezagutzea da, itzultzaileak jatorrizko testuak helarazten dituen ideia eta kontzeptuak modu egokian itzuli dituen ala ez aztertzeko, eta itzulpen-prozesuan sortzen diren zailtasunen aurrean, itzultzaileak egin ditzakeen hautuak ezagutzeko.

AURKIBIDEA

1. Sarrera.....	4
2. Metodologia.....	6
3. Itzulpenaren azterketa.....	7
a. Erreferentzia kulturalak.....	7
i. Pertsona-izenak.....	7
ii. Errusiar-sobietar kulturako pertsonaia ezagunak.....	9
iii. Leku-izenak.....	15
iv. Errusiar-sobietar errealitateak.....	17
v. Estoniar kultura errusiar baten ikuspegitik.....	19
b. Politika.....	23
i. SESBren ideologia eta propaganda.....	23
c. Gizartea.....	30
i. Hipokrisia sozialista.....	30
4. Ondorioak.....	36
5. Bibliografia.....	38
6. Eranskinak.....	39

1. Sarrera

Gradu Amaierako Lan honetan, Sergei Dovlatov idazle errusiarraren *Konpromisoa* eleberrian ageri diren erreferentzia kulturalen euskarazko itzulpena aztertuko dut. Horretarako, kontuan izan behar da, Sobietar Batasunaren (aurrerantzean, SESB) garaian idatzitako obra baten aurrean gaudela, eta garai hartako politika eta gizartea biltzen dituzten erreferentzia ugari izan direla.

Erreferentzia kultural horiek zailtasunak eragin diezazkiokete itzultzaileari. Hortaz, kultura modu egokian itzultzeko, itzultzailearentzat ezinbestekoa da sorburu-hizkuntza (aurrerantzean, SH) menperatzeaz gain, SHko kulturaren ezagutza zabala izatea. Gainera, garrantzitsua da itzultzailea dokumentazio-lanean trebea izatea, baita itzulpengintzak berak eskaintzen dituen estrategia eta baliabide ugarien berri izatea ere.

Aztergai dugun obraren idazlea Sergei Dovlatov dugu. Idazle errusiarra da, 1941eko irailaren 3an jaio eta Leningraden, hau da, SESBen hazi zena. Aita antzerki-zuzendaria eta ama aktorea zituen, eta hortaz, giro artistiko batean hezi zuten. Leningradeko Unibertsitatean Filologiako ikasketak hasi, baina unibertsitatea utzi behar izan zuen, eta zerbitzu militarra joan zen Siberiara. Bertan bere idazle ibilbideari ekin zion, bere lehenengo istorio laburrak han idatzi baitzituen.

60ko hamarkadan, hau da, perestroika aurreko urteetan kazetaritza lanetan hasi zen, eta testuinguru horretan *Konpromisoa* eleberria idatzi zuen. Bertan, Dovlatovek Brezhneven garaiko SESB (1964-1982) aurkezten digu, ironiaz betetako kritika sozialaren bidez. *Зачмоў* izenaz ezagutzen den garaia da, izendapenak berak irudikatzen baitu garaiko egoera: SESB leku zingiratsu, ustel eta geldo bat zen, non politika, ekonomia eta gizartea ez atzera ez aurrera geratu ziren. Egonkortasuna zen protagonista herrialde batetik, dezelerazio sozio-ekonomiko batean murgildutako herrialde bat izatera igaro zen. Idazlearen hitzetan, eta *Konpromisoa* eleberrian bertan adierazi zuen bezala: “gezur eta itxurakeriaz beteriko hamar urte”.

Konpromisoa hitzak, hain zuzen, liburu guztia blaitzen duen kontzeptu bat islatzen du: hipokrisia. Konpromisoa errusieraz amore emate bat da, eta Dovlatovek salatzen duena da bere burua “saldu” egiten duela artikulu bat idazten duen bakoitzean. Liburu osoa hamabi kapituluetan dago banatuta, hau da, hamabi konpromisotan. Konpromiso

horietako bakoitza, beraz, amore emate gisa aurkezten du Dovlatovek, artikulu bakoitzaren atzean dagoen gezurra, istorioa eta hipokrisia agerian utziz.

SESBen bizitzeko eta lan egiteko aukerarik gabe geratzen den unea deskribatzen du Dovlatovek bere eleberrian, eta ondorioz, Dovlatov eta bera bezalako biztanleei, geratzen zaien bakarra handik alde egitea edo guztiz alkoholizatua bukatzea da. SESBetik Ameriketako Estatu Batuetara alde egin behar izan zuen, eta SESBekoa bezalako erregimen estu batean argitara ezin zezakeen eleberri eta ipuin laburrak plazaratzeko aukera izan zuen: horien artean, lan honetan aztergai dudan *Konpromisoa* eleberria.

Aipatu bezala, ezinbestekoa da itzultzaileak itzulpen-lanari ekin baino lehen itzulgaiaren eta jatorrizko idazlearen testuinguru historiko, politiko eta soziala ezagutzea, bere itzulpenean horien berri eman beharko diolako euskal irakurleari. Informazio hori xede-hizkuntzan (aurrerantzean, XH) helaraztea ez da erraza, eta itzultzaileak hautu anitz egin beharko ditu itzulpen-prozesu osoan zehar.

Lan honetan, hain zuzen, itzulpen-prozesuan zehar erreferentzia kultural horiek sortzen dituzten zailtasun ugariari aurre egiteko, itzultzaileak topatu dituen irtenbideak eta egin dituen hautuak aztertuko ditut, eta horretarako, honako egitura jarraituko du nire lanak: lehenik eta behin, itzulpen-lanaren azterketa egin ahal izateko jarraitu dudan metodologia azalduko dut. Ondoren, erreferentzia kulturalen itzulpenaren azterketari helduko diot. Eta azkenik, lanari amaiera emateko, azterketa horren ostean ateratako ondorioak plazaratuko ditut.

2. Metodologia

Konpromisoa obran ageri diren erreferentzia kulturalen euskarazko itzulpena aztertzeko, corpus bidezko metodologian oinarritu naiz. Hau da, aztergai dudan Dovlatoven obraren itzulpenean ageri diren erreferentzia kulturalen adibideekin corpus elebiduna osatu dut: ezkerreko zutabeen errusierazko adibideak txertatu ditut, eta eskuinaldean, adibide horien euskarazko itzulpena.

Corpusa osatzeko, euskal irakurlearentzat ulermen-zailtasuna suposa dezaketen erreferentziak identifikatzea izan da lehenengo urratsa. Horretarako, errusiar-sobietar kulturarekiko lotura txikia, edo eza, duen euskal irakurle arrunta aintzat hartu dut, eta haren ikuspegitik aztertu dut itzulpena. Itzulpenean euskal irakurlearentzat harrigarriak, arrotzak eta nahasgarriak izan daitezkeen adibideak taula batean bildu, eta jarraian, jatorrizko adibideekin taula osatu dut.

Hurrengo urratsa, adibideen gaikako sailkapena egitea izan da. Adibide guztiak corpusean bildu eta gero, gaiaren arabera, honako atal nagusietan banatu dut nire corpusa: izen bereziak, errusiar-sobietar errealitateak, estoniar kultura, sobietar gizartea eta sobietar politika.

Azkenik, adibide bakoitzean itzultzaileak egindako hautuak aztertu ditut, euskal irakurleari ulertaraziko zaiona aintzat hartuz. Horretarako itzultzaileak erabilitako itzulpen-estrategia edo teknikak identifikatu eta itzulpenaren azterketari ekin diot. Itzulpen-estrategiei dagokienez, Newmarkek (1988) proposatutako sailkapenean oinarritu naiz. Honako itzulpen-teknikak topatu ditut egindako azterketan: transferitzea, gehikuntza, oharrak, baliokide funtzionala eta itzulpen literala edo kalkoa.

3. Itzulpenaren azterketa

a. Erreferentzia kulturalak

i. Izen bereziak

- Pertsona-izenak

Errusiar izenek aldaera ugari dituzte. Aldaera horiek testuinguruaren eta egoera komunikatiboaren arabera dira, hau da, lagunarteko egoera komunikatibo batean laburdurak erabiliko dira, egoera formalago batean, ordea, izena, izena eta izen patronimikoa, edo abizena soilik. Euskaraz ez da hori gertatzen, pertsona bakoitzak bere izena du, eta izen hori egoera komunikatibo ezberdinetan mantenduko da, salbuespenak salbuespen. Ondorioz, euskal irakurlea hainbeste izen errusiar irakurrita nahas daiteke, euskaraz ez dugulako izenen aldaera ezberdinak erabiltzeko ohiturarik. Beraz, itzultzaileak zaindu beharreko alderdi bat da errusiar izenena. Hona hemen adibide batzuk:

- Серж , постарайся!	- Sergei , saia zaitez!
-----------------------------	--------------------------------

7. adibidean ikus daitekeen bezala, *Сергей*ri zuzentzeko *Сергей* izenaren forma laburretako bat erabiltzen du jatorrizko idazleak: *Серж*. Kontua da, ez dela errusierazko forma labur bat, frantsesezkoa baizik. Hala ere, itzultzaileak *Sèrge* bezalako zerbaiten alde egin beharrean, *Sergei* izena ipini du, izenaren forma laburra erabiltzeari uko eginez. Idazleak *Серёжа* bezalako forma errusiarren bat erabili izan balu, beharbada itzultzaileak errusieraz mantenduko luke: *Seriozha*. Dena dela, argi dago itzultzaileak arazo bat identifikatu duela, eta, euskal irakurleak aintzat hartuz, horri aurre egiteko irtenbide egoki baten alde egin duela.

<p>Лидочка вышла из кабинета.</p> <p>[...] По образованию Лидочка была врачом-гигиенистом.</p> <p>[...] Агапова достала блокнот и записала на чистой странице-Левин.</p>	<p>Lidotxka bulegotik irten zen.</p> <p>[...] Lidak medikuntza ikasi zuen higienista espezialitatearekin.</p> <p>[...] Agapovak koadernotxoa hartu eta orrialde zuri batean idatzi zuen: Levin.</p>
---	--

12. adibidean, pertsona bera hiru izendapen ezberdinekin aipatzen da jarraian doazen hiru paragrafotan. Irakurle euskaldunarentzat arrotza izan daiteke eta konfusioa eragin dezake. Jatorrizkoan *Lidotxka* bitan ageri da, itzultzaileak, aldiz, bigarren *Lidotxka* hori *Lida* bezala itzultzea erabaki du, eta horrek irakurlearen konfusioa areagotu dezake. Gainera, izenaren aldaketa hori ez da beharrezkoa. Itzultzaileak dagoeneko *Lidotxka* erabili du, beraz, zergatik ez mantendu bigarren *Lidotxka* hori? Jatorrizkoarekiko fidelagoa izango litzateke, eta euskal irakurlearentzat koherenteagoa.

Bestalde, hurrengo paragrafoan fidel jokatu du itzultzaileak, eta *Agapova* abizena utzi du *Lida* edo *Lidotxka* ipini beharrean. Kasu honetan, zilegi da izenaren alde egitea, testuinguruak ez duelako erregistro formalago bat eskatzen, eta horrela, euskal irakurlearen konfusioa saihesten da.

<p>-Мишка,-говорю,-у тебя нет ощущения, что все это происходит с другими людьми... Что это не ты... И не я... Что это какой-то идиотский спектакль... А ты просто зритель...</p>	<p>- Mishka –esan nion– ez daukak hau guztia beste norbaiti gertatzen ari zaionaren irudipena? Ez haizela hi... ez naizela ni... Hau ikuskizun ergelen bat bakarrik dela... Eta hi ikusle bat besterik ez haizela...</p>
--	---

20. adibidean, Jbankov pertsonaia lehen aldiz *Mishka* izenaz ageri da, hori ere arrotza da euskal irakurlearentzat, izen hori lehen aldiz agertzen delako, eta irakurle euskaldunak ez duelako izen hori zuzenean Jbankov pertsonaiarekin lotuko. Kasu honetan, itzultzaileak bi aukera dauzka: alde batetik, jatorrizkoari fidela izatearren, *Mishka* utzi dezake, baina azalpen gehigarriren bat emanez, oin-ohar baten bidez, esaterako, eta bestetik, diminutiboak ezabatu eta Jbankov ipini dezake, irakurleak dagoeneko pertsonaia hori izen horrekin ezagutzen duelako. Azken aukera horrek irakurlearengan sor daitezkeen buruhaustek ekiditen dira, baina horrek errusiar kultura eta hizkuntzaren aberastasunaren galera dakar.

<p>Редактор недовольно хмурит брови. Ему неприятно задавать такой ущербный вопрос сотруднику республиканской партийной газеты. У редактора бежевое младенческое лицо,</p>	<p>Erredaktoreak bekainak zimurtu zituen, gustura ez zegoela aditzera emanez. Ezatsegina zitzaion partiduaren errepublika mailako egunkariko langile bati horren galdera lotsagarria egin behar izatea. Erredaktoreak haur aurpegi beix</p>
---	---

широкая поясица и детская фамилия- Туронок.	bat zeukan, gerri-buelta zabala eta abizena bera ere umearena: Turonok ¹ .
---	--

26. adibidean, itzultzaileak hitz-joko bat identifikatu du. Hitz-jokoen itzulpena oso zaila izan ohi da, batez ere, lan-hizkuntzak errusiera eta euskara bezain ezberdinak direnean. Hitz-jokoa euskaraz funtziona dezan, abizen hori aldatu beharko luke, euskarazko atzizki txikigarri bat (-txo, -ño, etab.) gehituz, adibidez. Hala eta guztiz ere, emaitza nahiko ez naturala izango litzateke eta jatorrizkoa sortzen duen efektua galtzen da. Hortaz, irtenbide apropos baten alde egin du itzultzaileak: oin-ohar baten bidez hitz-jokoa azaldu du. Egia da, oin-oharrera jo ordurako, txistearen helburua galdu egiten dela, barrea gerora etortzen delako. Baina hobe hori, txistea guztiz galtzea baino.

-А ты?-спросил я Быковера. -Надо будет-спою,-ответил Фима	- Eta hik? –galdetu nion Bykoverri. - Abestu behar bada, abestuko diat – erantzun zuen Fimak.
--	---

28. adibidea errusiar izenek sortzen dituzten konfusioaren adibide oso adierazgarria da. Izan ere, pertsonaia bera jarraian doazen bi lerroetan izen ezberdinekin agertzen baita: *Bykover* eta *Fima*. Egia da, pasarte honen aurretik *Fima Bykover* bezala ageri dela behin. Baina, hortik aurrera pertsonaia hori ageri den bakoitzean *Bykover* gisa ezagutzera ematen da. Hortaz, honelako adibide batera iristerakoan, irakurleak dagoeneko *Bykover* horren ponte-izena *Fima* dela, ahaztuta izango du dagoeneko, eta arrotza egingo zaio, *Bykoverri* galdetu eta *Fimak* erantzutea. Hala ere, ponte-izena eta abizenaren arteko lotura berregitea ez da zaila izango irakurlearentzat, bata bestearen atzetik doazelako, baina horrek irakurketa oztopatu baino ez du egiten. Beraz, koherentzia mantentzearen, *Fima* hori ezabatzea irtenbide aproposa litzateke.

- Errusiar-sobietar kulturako pertsona ezagunak

Pertsonaia konkretu ugariri egiten die erreferentzia Dovlatovek liburu osoan zehar. Jatorrizko idazleak, gehienetan, bere horretan aipatzen ditu pertsonaia horien izenak, aintzat hartzen baitu, euskal irakurleak liburuan aipatzen diren pertsonaia horiek

¹ Hitz jokoa. Errusieraz “-nok” atzizkiak “kume” adierazten du.

ezagutuko edo erraz identifikatuko dituela. Aldiz, irakurle euskaldun batek ez du zertan pertsonaia horiek ezagutu, beraz, itzulpen oztopo batekin topatzen da itzultzailea, izan ere, zer bide har dezake itzultzaileak kultura sobietarra euskal irakurlearengana hurbiltzeko? Aztergai dudan itzulpen honetan, hiru irtenbide ezberdin hartu ditu itzultzaileak arazo horri aurre egiteko:

○ Transferitzea

- Под рубрикой-"Гости Таллинна". Студентка изучает готическую архитектуру. Не расстается с томиком Блока .	- <i>Tallinneo bisitariak</i> atalerako. Tallinneo arkitektura gotikoa aztertzen dabilen ikasle bat. Bloken liburuxka beti gainean daramana.
-Гастролируют столичные творческие коллективы? -Разумеется, вплоть до Магомаева .	- Hiriburuko kolektibo artistikoek eramaten al dituzte euren ikuskizunak zuen hirira? Noski baietz. Pentsa, Magomaiev bera ere etorri izan da.

6. eta 15. adibideetan *Blok* eta *Magomaiev* aipatzen dira. Euskal irakurleak ez du zertan jakin nor diren *Aleksandr Blok* poeta sinbolista errusiarra eta *Muslim Magomaiev* abeslari sobietar-azeriar eta errusiarra. Hala ere, itzultzaileak bi izen horiek bere horretan uztea erabaki du, azalpen gehigarririk eman eta oin-oharrik gehitu gabe.

15. adibidearen kasuan, testuinguruari esker, euskal irakurleak suposa dezake *Magomaiev* garai sobietarreko artista bat zela, beraz, zilegi deritzot itzultzaileak hartutako hautuari. Dena den, irakurle euskaldunak izen ezezagun bat topatzerakoan, gerta liteke arreta gehiagorik ipini gabe ere, irakurketarekin aurrera egitea eta bere buruari *Magomaiev* delako hori nor den ez galdetzea. Hortaz, egokiagoa litzateke beharbada, azalpen gehigarriren bat ematea, aposizio batekin, adibidez: “*Magomaiev abeslaria* bera ere etorri izan da”. Horrela, kultura erreferentzia ulerterrazagoa bilakatzen da, eta sobietar kultura zabaltzeko aukera ematen du ere.

6. adibidearekin, ordea, ez da gauza bera gertatzen. Egia da, *Aleksandr Blok* nazioartean ezagunagoa dela *Magomaiev* baino, eta literaturazale euskaldun batentzat ziurrenik ezaguna izango dela. Hala ere, errusiar kulturarekin inolako loturarik duen irakurle euskaldun arrunt batek zailtasunak izan ditzake *Blok* abizen bat dela identifikatzen, kontuan izanda, gainera, *Blok* abizenak ez duela errusiar abizenek duten ohiko itxura. Bestalde, euskarak, errusierak ere egiten duen bezala, deklinabidearen bidez atzizkiak gehitzen dizkio hitzei, eta horren ondorioz, *Bloken* (*liburuxka*) ageri da

itzulpenean. Deklinabide atzizkiek zaildu egiten dute euskal irakurlearen ulermena. Izan ere, zein da hitza berez: Bloken? Bloke? Blok? Egia esan, letra larriz idatzita egoteak pista ematen dio irakurleari, izen berezi bat dela identifikatzeko. Hala eta guztiz ere, azalpen gehigarri bat ematea hautu egokia dela esango nuke: *Blok poetaren liburuxka*. Era horretara, euskal irakurleak erraz identifikatuko du izena.

Interesgarria da ere, itzultzaileak jatorrizko testuan aipatzen ez den zerbait gehitu duela adibide horren aurreko esaldian: “*Tallinneo* arkitektura gotikoa aztertzen dabilen ikasle bat”. Jatorrizkoan ez da Tallinn aipatzen, baina itzultzaileak beharrezkotzat jo du hori gehitzea. Itzultzaileak hartutako hautu hori eztabaidagarria da, informazio hori gehitzea ez delako beharrezkoa, izan ere, testuinguruak horren berri ematen du: liburu osoan zehar Estonian igarotzen diren pasarteak kontatzen dira, eta gainera, liburuan bertan aipatzen da *Tallinneo bisitariak* atalerako elkarrizketa egingo duen ikasle baten bila dabilzala liburuko pertsonaiak, hortaz, Tallinneo arkitektura gotikoa aztertzen ibiliko da, eta ez beste inongoa.

Laburbilduz, beharrezkoagoa ikusten dut *Blok* edo *Magomaiev* bezalako erreferentzia kulturaletan azalpen gehigarriak ematea, azkeneko adibide honetan baino; euskal irakurlearen arreta gehiago piztuko duten adibideak baitira, eta azalpen horiek gabe informazio falta somatuko bailuke. Nolanahi ere, itzultzaileak ez ditu hautuak ausaz hartzen, hainbat faktorek bultzatu dute itzultzailea, adibide horietan informazio gehigarririk ez ematera: testuaren hartzailea, esaterako. Itzultzaileak buruan duen hartzailea, errusiar kulturarekiko lotura estua, eta ez hain estua, duen irakurle euskalduna da, hau da, errusiar historia eta kultura ezagutu eta gai horietan interesa agertzen du eta irakurria da.

Beharbada itzulpena euskal irakurle arruntarentzat egin izan balu, goian proposatutako hautuaren alde egingo zukeen. Hala eta guztiz ere, horrelako irakurketa batean murgiltzen den irakurlea ez da umea, eta ezagutza maila minimo bat eskatzen zaio. Irakurlearen eskuetan geratzen da, bere ezagutza maila zabaldu nahi izanez gero, ezagutzen ez dituen pertsonaia konkretu horien inguruko informazioa bere kabuz bilatzea.

○ Gehikuntza

<p>Хлестаков был с Пушкиным на дружеской ноге, а мой знакомый Генч вернулся из Москвы подавленный и</p>	<p>Gogolen Khlestakovek Pushkinekin adiskidetasun estua zuela esaten zuen, eta Genitx nire ezaguna,</p>
---	---

ТИХИЙ-Олжаса Сулейменова увидел в ЦУМе.	berriz, burumakur eta hizketarako gogorik gabe itzuli zen Moskutik, TSUM supermerkatuan Oljas Suleimenov idazlea ikusi zuela eta.
<i>Онегина в мешковатых брюках или Собакевича в элегантном фраке...</i>	<i>Imajina itzazue Pushkinen Onegin zaku formako galtzekin edo Gogolen Sobakievitx zabarra frak dotore batekin...</i>

6. adibidean (*Tallinnekoko arkitektura gotikoa aztertzen dabilen ikasle bat*) azaldutakoari jarraikiz, kasu honetan ere, itzultzaileak euskal irakurlearentzat ulermen zailtasuna ekar zezaketen lau pertsona-izen identifikatu ditu 3. eta 16. adibideetan: *Khlestakov, Onegin eta Sobakievitx. (TSUM.)* Lehenengoak, Nikolai Gogol idazlearen *Ревизор* antzerki obraren protagonistari egiten dio erreferentzia; bigarrenak, Aleksandr Puxkinen *Евгений Онегин* hitz neurtuz idatzitako eleberriaren pertsonaia nagusiari; eta hirugarrenak, Gogolen *Mertvye dushi* eleberriko beste pertsonaia bati. Horrenbestez, itzultzaileak bi adibide hauetan ere jatorrizko testuan aipatzen ez diren izenak gehitzera derrigortuta sentitu du bere burua: *Gogol eta Puxkin*. Euskal irakurleak, errusiar kulturari atxikitua ez egonda ere, eta aipatutako obrak irakurri ez baditu ere, Puxkin eta Gogol idazle erreferenteak ezagutuko ditu ziurrenik, beraz, haien izenak aipatuta testuan agertzen diren pertsonaia (*Khlestakov, Onegin eta Sobakievitx*) errazago identifikatzeko gai izango da.

Bestalde, bigarren adibidean badago azalpen gehigarria eskatzen duen beste izen bat ere, pertsona-izena ez den arren, adibide aipagarria dena: *TSUM*. *TSUM*, Moskuko erdigunean dagoen supermerkatua da. Euskal irakurleak ez du zertan supermerkatu hori ezagutu, hortaz, euskal irakurleari ulermena errazteko, itzultzaileak bere burua behartuta ikusi du, *TSUM* supermerkatu bat dela aipatzera. Hurrengoko adibideetan ikusiko dugun bezala, itzultzaileak horrelakoetan era ezberdinetan jokatzeko duen liburu osoan zehar.

Horretaz gain, aipatzekoa da ere goiko adibideok interesgarria den beste alderdi bat erakusten dutela, hau da, zenbait pertsonaien izenak transliteratzeko erabili diren arauak zaharkituta geratu direla. Kontuan izan behar da, liburuaren itzulpena 2008an argitaratu zela, eta, aldiz, errusieratik euskarara transliteratzeko arauak 2009an aldatu zirela. Hortaz, arau berri horiei helduz, *Kashirin* beharrez, *Kaxirin* beharko luke; *Pushkin* beharrez, *Puxkin*; eta *Oljas* beharrez, *Olzhas*. Hortaz, euskarara transliteratzeko arau zaharrak erabili zituen azkeneko itzulpenaren aurrean gaudela esan daiteke.

Errusieratik euskarara, edo alfabeto zirilikoaren erabilpena ez duen beste edozein hizkuntzara, itzultzerakoan, transliterazioa zaindu beharreko alderdi garrantzitsu bat da, irakurleak errusierazko hitz, izen, ideia edo kontzeptua irakurtzeko eta ulertzeko gai izan dadin. Egia da, adibide hauetan, *Kashirinetik Kaxirinera*, adibidez, ortografia besterik ez dela aldatzen, eta euskal irakurlearentzat ez dela interesgarria. Dena den, euskaraz transliterazioa estandarizatuta dagoenez gero, hobe da arau horiek errespetatzea.

○ Oharrak

Askotan itzulpen-prozesuan ez da erraza erreferentzia hain zehatzak euskarara ekartzea, eta aurreko adibideetan ez bezala, itzultzaileak testuan bertan informazio gehigarria txertatzeko zailtasunak egonen dira, aposizio xume batekin ez delako nahikoa erreferentzia ulertu ahal izateko. Horrenbestez, honako adibide hauetan itzultzaileak bere burua behartuta ikusi du oin-ohar baten bidez ondorengo erreferentziak azaltzera:

Вера опьянела, целовала портрет Добролюбова : "Какие были люди!"	Vera mozkortu egin zen, eta Dobroliuboven ² erretratuari musuka hasi zitzaion: "Lehenagoak bai gizonak haiek!"
- [...] Спасибо, говорит, ребята выручили, нашли. Орлы, говорит, передовики, стахановцы ...	- [...] "Eskerrak mutilek salbatu nauten, nire hortzak aurkitu dituzte. Urpekaritzaren arranoak, esaten dik, hauek bai langileriaren abangoardia, Stakhanoven seme jatorrak ³ ..."
Дело в том, что она не имела гражданского статуса. Галина была вдовой знаменитого эстонского революционера, чуть ли не самого Кингисеппа . И ей за это дали что-то вроде пенсии.	Kontua da Galinak ez zeukala estatus zibil jakinik. Estoniar iraultzaile ospetsu baten alarguna zen, ia-ia Kingissepp ⁴ beraren mailako bat. Eta hori zela eta, pentsio moduko zerbait eman zioten.
Вот и отлично. Договоритесь, чтобы ребенка назвали Лембитом. -Генрих францевич,-взмолился я- кто же назовет своего ребенка Лембитом! Уж очень старомодно. Из фольклора ...	- Ederki, bai horixe. Adostu gurasoekin haurrari Lembit izena jarri diezaioten. - Heinrich Franzevitx –esan nion nik erreguka– baina nork jarriko dio bere haurrari Lembit izena?! Zaharregia da. Folklorekoa ...

² Errusiar literatur kritikaria (1836-1861). Sobietar garaian ongi ikusia eta sakonki ikertua.

³ Aleksei Grigorievitx Stakhanov (1906-1977), sobietar meatzaria. Ikatz kopuru errekorra ateratzeagatik, Lan Sozialistaren Heroi izendatu zuten. Harrezkero, langile produktiboaren eredu bihurtu eta haren izena hartu izan zuten lanean emaitza eredugarriak lortzen zituzten langileek.

⁴ Viktor Kingissepp (1888–1922). Estoniako politikari komunista. 1922an, traizioa leporatuta, exekutatuta egin zuten. Beranduago, sobietar Estonian, birgaitua eta laudatua.

<p>-Пусть назовут. Какая им разница?! Лембит хорошо, мужественно и символично звучит... В юбилейном номере это будет смотреться.</p> <p>-Вы могли бы назвать своего ребенка-Вовой? Или Микулой?</p>	<p>- Jarri diezaiotela. Beraiei zer inporta zaie?! Lemit izenak belarrira ongi ematen du. Itxura ausarta eta sinbolikoa dauka. Urteurrenaren alean ongi geratuko da.</p> <p>- Zuk zure umeari Bova izena jarriko al zenioke? edo Mikula⁵?</p>
<p>А тут еще начались в Эстонии политические беспорядки. Группа диссидентов обратилась с петицией к Вальдхайму.</p>	<p>Gainera, une hartan bertan, Estonian istilu politikoak hasi ziren. Disidente talde bat Waldheimi⁶ zuzendu zitzaion eskari batekin; demokratizazioa eta autodeterminazioa aldarrikatzen zituzten.</p>

4, 8, 23, 10 eta 24. Adibideetan zilegi da oin-oharraren erabilera, testuinguru hobeto ulertzeko ezinbestekoak direlako. Hala ere, beste zenbaitetan oin-oharren erabilera zalantzarria izan daiteke:

<p>- [...] Сунулись бы к Айвазовскому, мол, рисуй нам бурлаков за шестерик... Я ведь художник...</p>	<p>- [...] Horretarako Aivazovskirengana⁷ joan daitezela, esanez, marraziez zuzentzen ibaietako langileak sei errubloengatik... Ni, ordea, artista bat nauk...</p>
<p>Около уборной (интересно, почему архитектура вокзальных сортиров так напоминает шедевры Растрелли?) дежурила машина.</p>	<p>Komunen inguruan (interesgarria litzateke jakitea zergatik duten geltokietako komunek Rastrelliren⁸ maisulanen horrenbesteko antza) auto bat zegoen zain.</p>

17. eta 18. adibideetan, testuinguruak berak aditzera ematen du erreferentziatzen diren pertsonak margolariak direla. Hala ere, informazio gehigarria eman nahi izan du itzultzaileak, oin-ohar baten bidez, baina zenbateraino da informazio gehigarri hori beharrezkoa testuinguru ulertzeko? Egia esan, gehikuntza bidez txertatzeko moduko

⁵ Errusiar folkloreko bi pertsonaia ezagun. Antzinako hainbat poema epikotan agertzen dira.

⁶ 1972 eta 1981 artean, Nazio Batuen Erakundeko idazkari nagusia.

⁷ Ivan Konstantinovitx Aivazovski (1817-1900), armeniar jatorriko errusiar margolaria. Paisaiak islatzen zituzten margolanengatik ezaguna. Europako arte-akademia askotako kide izendatua eta sari ugari jaso.

⁸ Francesco Bartolomeo Rastrelli (1700-1771), italiar jatorriko errusiar arkitektoa. Barroko berantiarren ordezkaria. Mosku, Kiev eta San Petersburgoko zenbait eraikin garrantzitsuren egilea.

informazioa da, aposizio bidez: *Aivazovski margolari armeniarra* eta *Rastrelli arkitekto italiar-errusiarra*.

Azken finean, oreka mantendu behar du itzultzaileak: irakurketa erraztea beharrezkoa da, baina testua ezin da oin-oharrez beteta egon. Ulermena bermatzeko ezinbesteko informazioa bada, ordea, hori gehitzea zilegi da oin-oharraren alde egitea.

-Лидочка, рак-слишком печально. Порождает отрицательные эмоции. Ассоциируется с неизвестным романом. Мы ждем чего-нибудь светлого...	- Lidotxka, kantzerraren gaia goibelegia da. Emozio ezkorrak azaleratzen ditu. Denok ezagutzen dugun disidente horren nobelarekin lotzea dakar ⁹ . Guk koloretsua izango den zerbait espero dugu...
--	---

13. adibidean, itzultzaileak bi itzulpen-teknikaz baliatu da. Alde batetik, informazio gehigarria testuan bertan txertatu du: jatorrizkoan ez da *disidente* hitza aipatzen, baina testuingurua ulertzeko informazio hori gehitzea ezinbestekoa ikusi du itzultzaileak. Izan ere, SESBren garaian, errepresio eta zentsuraren eraginez, oso presente zituzten pertsona disidenteak eta haien lanak, eta horren ondorioz, liburuan kantzerraren inguruan ari direla kontuan hartuta, *denok ezagutzen dugun nobela* aipatzearekin, nahikoa zen, nobela hori Aleksandr Isaievitx Solzhenitsinen «Kantzerdunen pabilioia» obrarekin lotzeko. Euskal irakurleengan ez da gauza bera gertatzen, informazio gehigarririk gabe nekez asmatuko luke euskaldun batek zein nobelaz ari den Dovlatov. Horregatik, oin-oharraren bidez nobelaren eta bere autorearen inguruko informazioa ematen du. Kasu honetan, hautu egokia egin du itzultzaileak, gehikuntzaren bidez jatorrizkoak sortzen duen efektua lortzen duelako, eta oin-oharraren bidez, testuingurua ulertzeko ezinbesteko informazioa eskaintzen duelako.

- Leku-izenak

Leku izenekin ere joera ezberdinak antzematen dira itzultzailearengan. Oro har, mantentzen da jatorrizko testuarekiko fidel mantentzen da, beste batzuetan, ordea, bestelako hautuak hartzen ditu. Hona hemen adibideak:

⁹ Aleksandr Isaievitx Soljenitsin idazle disidentearen “Kantzerdunen pabilioia” liburua esan nahi da. Idazlan honetan bortizki kritikatzeko du sobietar sistema.

<p>Шаблинский работал в газете "Советская Эстония". Гостил в Ленинграде неделю. И теперь возвращался с оказией домой.</p>	<p>Shablinskik <i>Sobietar Estonia</i> egunkarian egiten zuen lan. Astebete zeraman Leningraden lagunen batzuen etxean, baina Tallinnera itzultzeko modu bat aurkitu zuen eta bazihoan.</p>
---	--

21. adibidean, itzultzaileak fideltasuna gordetzearen alde egin eta hiriaren izena bere horretan uztea erabaki du. SESBren garaian Leningrad, gaur egungo San Petersburgo zen. Errusiar kultura edo historia pixka bat ezagutzen ez duen norbaitek agian ez litzateke ondorio horretara segituan iritsiko, beraz, hori kontuan hartuta, San Petersburgo ipintzeko edo azalpen gehigarriren bat txertatzeko hautua har zezakeen itzultzaileak. Hala ere, hori ez litzateke hautu aproposa izango. SESBren garaian idatzitako eleberri baten aurrean gaude, eta irakurleari ulermena erraztearren garaiarekiko koherentzia hori galtzea ez da zilegi. Bestalde, tankera horretako hiri batek ez du azalpen gehigarri baten beharrik.

<p>На Вышгороде и в Кадриорге, где меня окружали ручные белки, доверчивые и трогательные.</p>	<p>Toompean eta Kadriorgen izan naiz. Eskutik jatera etortzen zaizkizun katagorriak zebiltzan inguruan. Hain ziren fidakor eta hunkigarriak.</p>
---	--

22. adibidean ikus daitekeenez, Dovlatov Estonian bizi zen errusiarra izanik, bertako leku izen asko errusieraz jartzen ditu, baina itzultzaileak —beharbada euskaldunok hizkuntza gutxituekiko daukagun sentsibilitate bereziagatik edo— leku izen horien estonierazko izenak zeintzuk diren jakiteko lana hartu eta itzulpenean islatu ditu. Adibidean ikus daiteke hori: *Вышгород* beharrean, *Toompea* itzuli du, eta ez *Vyshgorod*. Kontrako hautua hartuta, hau da, errusierazko izena ipiniz gero, itzulpena fidelagoa izango litzateke, izan ere, jatorrizko idazlearen ikuspegia islatuko zelako itzulpenean. Dena den, *Vyshgorod* Ukrainiako hiria ere bada, eta nahiz eta testuinguruak Tallinni buruz ari direla aditzera eman, nahasgarria izan daiteke irakurlearentzat. Gainera, hitzez hitzeko itzulpenean erortzeko arriskua dago, izan ere, nazioarteko hizkuntza askotan, euskara barne, estoniar hiriburuko muino ezagunak *Toompea* izena ere hartzen duelako. Beraz, euskal irakurleak ez luke *Vyshgorod* izena eta *Toompea* muinoaren arteko lotura egingo. Itzultzaileak izen internazionalagoaren alde agin du, eta hortaz, euskal irakurlearentzat identifikatzen errazagoa izango da *Vyshgorod* izen errusiarra baino.

ii. Errusiar-sobietar errealitateak

• Transferitzea

<p>- "Псковский сувенир".</p> <p>Я раскрыл коробку. В ней лежал анодированный ключ размером с небольшую балалайку.</p>	<p>- <i>Pskoveko oroigarria.</i></p> <p>Kutxa ireki nuen. Balalaika baten tamainako giltza anodizatu bat zegoen bertan.</p>
<p>В зале стоял невообразимый шум. кто-то уже вытаскивал из ящиков реквизит. кто-то плясал лезгинку с бутафорским ятаганом в зубах...</p>	<p>Aretoan zarata imajinaezin bat zegoen. Norbait kaxetatik trasteren batzuk ateratzen hasi zen. Beste norbaitek lezginka bat dantzatzen ziharduen, hortzetan gezurrezko jatagan bat zeukalarik...</p>

11. adibidean, itzultzaileak *balalaika* bere horretan utzi du, azalpen gehigarririk eman gabe; ez du terminoa azaltzeko beharrik ikusi kasu honetan. Egia da, askotan, nahiz eta beste kultura bateko terminoa izan, irakurle euskaldunak jakingo edo ulertuko duela zer den, globalizazioari esker, gurean ere oso zabalduta dagoen kontzeptua delako. Arriskua da, itzultzailea errusiar kulturari hain sartuta egotea, non ez den ohartzen errusiar kulturarekin lotura zuzenik ez duen euskal irakurle batek zer ulertzen duen eta zer ez. Dena den, *balalaika* hitza euskal hiztegiek ere biltzen duten hitza da, horrenbestez, ez du azalpen gehigarri baten beharrik.

Bestalde, 37. adibidean agertzen diren, eta gure kulturari behar bada hain zabalduta ez dauden *lezginka* (Dagestango dantza tradizionala) eta *jatagan* (Asian jatorria duen arma zuria, xafla kurbatuko laban moduko bat) bezalako hitzak bere horretan uzteak oztopoa izan daiteke euskal irakurlearen ulermenarentzat. Hala ere, *jatagan* hitza euskal hiztegiek (Elhuyar, Harluxet) biltzen duten hitza da. *Lezginka*, ordea, nahiz eta euskal hiztegietan ez agertu, testuinguruaren arabera, ulertzen da *lezginka* bat dantzatu egiten dela. Beraz, itzultzailearen hautua arrazoizkotzat jo daiteke.

Honezkero, antzeman daiteke itzultzaileak hautu ezberdinak egiten dituela antzeko kasuetan, garrantzitsu da aztertzea, zergatik egin duen hautu horien alde. Izan ere, kasu batzuetan, terminoa bere horretan utzi du, beste askotan, berriz, azalpen gehigarriak testuan txertatzen ditu edota oin-oharrak gehitzen ditu: hortaz, non dago oin-oharren muga? Inkoherentea izan al da itzultzailea?

<p>-Для организации побегов требовались средства. Стали думать, как их раздобыть. И, представьте себе, нашли выход. Я неплохо играл в шахматы. И начальник лагеря был завзятым шахматистом. Решили организовать матч. Назначили приз-восемьдесят марок. Товарищи страстно за меня болели. Я выиграл семь партий из десяти. Начальник лагеря сказал: "Доннер-веттер!"-и расплатился...</p>	<p>- Nik xakean nahiko ongi egiten nuen eta eremuko zuzendaria xakezale amorratua zen. Partida bat antolatzea erabaki genuen. Saria ezarri genuen: laurogei marko. Kamaradek sutsuki animatu ninduten, eta hamarretik zazpi partida irabazi nituen. Eremuko zuzendariak "Donner-wetter!" esan eta zorra kitatu zuen...</p>
--	---

33. adibidean, agian "*Donner-wetter!*" (alemanez: *Arranopola!*; *Jainko maitea!*; *Ene bada!*) esamoldea azaldu beharko litzateke, irakurleak ez du zertan alemana jakin, eta testuingurua ulertzeko garrantzitsua den zerbait dela pentsa dezake. Egia esan, itzultzaileak esamoldea euskarara itzul zezakeen, baina alemanez uztearen atzean, badago arrazoi nagusi bat: jatorrizko testuarekiko fidel jokatzearekin batera, jatorrizkoak sortzen duen efektu bera lortzea. Efektu hori mantentzea garrantzitsua da, eta testua aberastu egiten du, baina irakurlea aintzakotzat hartu beharra dago zenbait kasutan, eta hau, kasu horietako bat izan liteke.

- Gehikuntza

<p>В поселке Кунгла мать-героиня родила одиннадцатое чадо.</p>	<p>Kungla herrixkan, ama-heroi deitzen duten horietako batek bere hamaikagarren haurtxoa munduratu omen zuen.</p>
---	--

Itzultzaileak euskal irakurlearentzat ezezaguna izan daitekeen kontzeptu bat identifikatu du 5. adibidean: *Мать-героина*. Stalinek 1944an sortutako ohorezko titulua da, 10 haur edo gehiago erditzen eta hazten zituzten emakumeei emandakoa. Kasu honetan, azalpen gehigarriaren beharra dago. *Ama heroia* gisa itzul zitekeen, baina, horrela, irakurleak jatorrizko idazleak asmatutako kontzeptua dela pentsa dezake. Itzultzaileak parafraasi baten bidez aditzera ematen du, *ama heroi* bat garai hartan benetan erabiltzen zen titulua zela argi uzteko.

<p>-Можно подумать, один ты- честный. А кто целую повесть написал о БАМе? Кто прославлял чекиста Тимофеева?</p>	<p>- Pentsa liteke hi haizela hemen ondradu bakarra. Eta nork idatzi zian Baikala eta Amurraren arteko trenbide-zatiari buruzko ipuin oso bat? Nork egin zian famatu KGBko Timofeiev?</p>
--	---

9. adibidean, itzultzaileak garbi zeukan euskal irakurleak ez zuela ulertuko *BAM* zer izan zen. Azken finean, parafraasia baino, ia-ia oin-oharra testuan bertan sartzea erabaki du, azalpen gehigarri gisa. Bestelako hautua egin du *чекист* (Errusia sobietarreko polizia politikoko kidea) terminoa itzultzerakoan. Euskaraz, polizia politiko hori izendatzeko *txeka* terminoa existitzen da [Elhuyar Hiztegia, Harluxet Hiztegi Entziklopedikoa], baina benetan zabaldua eta ezaguna den izendapena: *KGB* da. Horrenbestez, itzultzaileak bi aukera zeuzkan: jatorrizko testuari fidela izatea, eta euskal irakurleari ulermen arazo bat suposa zekioken terminoa erabiltzea, alde batetik, eta publiko orokorrak ezagutuko duen terminoa erabiltzea, eta euskal irakurleari ulermena erraztea. Bistakoa da, bigarren aukera horren alde egin duela.

Azkenik, aipatzekoa da, *Timofeieven* erreferentzia ez dagoela azalduta. Aurreko adibideetan ikus zitekeen bezala, itzultzaileak pertsonaia konkretuen erreferentzien aurrean modu ezberdinetan jokatzeko du, erreferentziok testuinguruan hartzen duten garrantziaren arabera. Kasu honetan, *Timofeiev kasuaren* inguruan ez dakien norbaitek, ez du erreferentzia ulertzerik, baina erreferentzia ulertu gabe ere ironia-kutsu hori gordetzen da, euskal irakurlearentzat argi dagoelako inkoherentzia bat leporatzen ari zaiola. Kontuan izan behar da, gaur egungo Errusiako irakurle batek ere ez dituela erreferentzia asko ezagutuko.

<p>-Хочешь борща?</p>	<p>- Borstx zopa pixka bat nahi duzu?</p>
------------------------------	--

Itzultzaileak aposizio baten bidez azaltzen du zer den 14. Adibideko *борщ*. Irtenbide aproposa da: izen errusiarra mantenduz, kultura errusiarra zabaltzeko aukera ematen duelako, eta, aldi berean, kontzeptuaren ulermena bermatzen delako.

iii. Estoniar kultura errusiar baten ikuspegitik

Dovlatoven *Konpromisoa* ongi deskribatzen duen ezaugarri bat “Errusiar bat Estonian” da, eleberri osoa estoniar kulturaren erreferentziaz beteta baitago. Gogoan izan behar da, Dovlatov Estonian bizi zen errusiarra zela, eta hortaz, estoniar kultura, ohiturak eta bizimodua errusiar baten ikuspegitik azaltzen dira, SESBren barneko bi errepubliken arteko konparaketa amaigabeak eraginez. Dovlatoventzat ikusten duena deskribatzea eta liburuan bitxikeria gisa biltzea besterik ez dena, euskal irakurlearentzat informazio oso baliagarria da, garaiko eta lekuko errealitatea ezagutu eta ulertzeko. Euskal irakurleak ez ditu estoniar ohiturei dagozkien erreferentziak ulertuko, Dovlatovek berak ere agian ez zituelako ulertuko. Euskal irakurleentzat benetan aberasgarria dena, sobietar errealitatea ulertzea da, hau da, SESB ez zen bakarrik Errusia, errepublika ezberdinez, edo probintzia ezberdinez, osatutako estatu bat baizik. Errepublika horiek, eskualde ezberdin guztiek bezala, euren kultura, hizkuntza, bizimodu eta ohitura propioak dituzte. Liburu honetan, Estonia errusiar baten begiekin aurkezten zaio irakurleari, eta bi errepubliken arteko alderaketa horri esker, irakurleak SESBrekiko duen ikuspuntu zabaltzeko aukera du. Hona hemen adibideok:

Таллинн-город маленький, интимный. Встречаешь на улице знакомого и слышишь: "Привет, а я тебя ищу..." Как будто дело происходит в учрежденческой столовой...	Tallinn hiri txikia da, lagunartekoa. Kanean ezagunen bat topatu eta entzuten duzu: “Kaixo, hain justu zure bila nenbilen...”. Lantokiko jangelan gertatuko balitz bezalaxe...
Более того, я даже преуспел. Если в Ленинграде меня считали рядовым журналистом, то здесь я был почти корифеем.	Are gehiago, gauzak ongi joan zitzaizkidan. Leningraden kazetari arruntzat baninduten, hemen ia-ia korifeo bat nintzen.
Редактор не обижался. Он был либерально мыслящим интеллигентом. Вообще обстановка была тогда сравнительно либеральной. В Прибалтике-особенно.	Erredaktorea ez zen horrelakoetan iraindua sentitzen. Mentalitate liberaleko intelektuala zen. Orokorrean, orduko giroa erlatiboki liberala zen. Bereziki, Baltikoko errepubliketan.

80, 100 eta 101. adibideak. Liburuan zehar, Estoniaren ingurukoak deskribatzen direnean, itzultzaileak itzulpen fidelaren alde egiten du. Goiko adibideek, ez dute itzultzailearentzat inolako zailtasunik eragiten, jatorrizko idazleak helarazten duena, halaxe jasotzen du itzultzaileak bere itzulpen-lanean. Ez dago informazio gehigarria emateko beharrik, ulertu egiten baita, Leningrad (San Petersburgo) bezalako hiri handi

batetik probintzietako hiri zen Tallinnera zetorren errusiar baten begiekin ikusten ari garela hiria. Euskal irakurleak segituan antzematen du, probintzietako bizitza eta giroa oso ezberdina dela. Lehenengo adibidean, primeran islatzen da hori, probintzietako kaleetan bertan eman ohi diren egoerak, Errusiako hiri handi bateko lantokiko gelan ematen dira. Gauza bera bigarren adibidearekin, hau da, Leningrad bezalako hiri handi batean ez bezala, Dovlatovek Tallinnen kazetari nabarmenago bat izateko aukera izan zuela. Hirugarren adibidean, ordea, giroari egiten dio erreferentzia, euskal irakurleak igartzen duen ideia, probintzietako bizimodua nahiko askeagoa zela da, eta hortaz, SESB ez zela leku guztietan hain zurruna eta iluna.

Продавец заваривал кофе на электроплитке. Его типично эстонский вязаный жилет был украшен металлическими пуговицами.	Dendaria su elektriko batean kafea egiten ari zen. Estonian tipikoak diren puntuz egindako txaleko horietako bat zeraman, metalezko botoiek apaindua.
Над входом-синий транспарант (в Эстонии любят синие транспаранты):	Sarrerako atearen gainean, pankarta urdin bat zegoen (Estonian gogoko dituzte pankarta urdinak).
Тарту-городок приветливый, культурный. В толпе мелькали зеленые студенческие фуражки	Tartu hiri adeitsua da, kulturaduna. Unibertsitateko ikasleen txapel berdeak nabarmentzen ziren jendartean.

31, 32 eta 30. adibideak. Itzultzaileak bere horretan itzultzen ditu Dovlatovek deskribatzen dituen estoniar tradizioko jantzi eta objektuak. Jatorrizko idazleak bezala, ez du horien atzean dagoen azalpen kulturalik ematen, Dovlatovek bere testuan dioena helarazteari murrizten da. Beharbada itzultzaileak ez du ohitura tradizional horien berri, baina liburuaren helburua ez da estoniar kulturaren azalpen teorikoen bilduma bat osatzea. Irakurlea kontuan hartu behar da, baina testua ezin da azalpen gehigarri “zikindu”. Irakurleak autonomia izan beharra dauka ere, bere kabuz, interesa pizten dizkion kontuen inguruan informazioa bilatzeko.

Aipatzekoa da, hirugarren adibidean, itzultzaileak *фуражки* baliokide funtzional batez ordezkatzeari erabaki duela: txapela. *Фуражки* hitza askoz ere zehatzagoa da, txapel mota konkretu bat. Hala ere, euskaraz ez dago horren ordain zehatzik, eta testuinguruak berak irakurleari igartzen dio zer-nolako txapelaz ari den Dovlatov.

<p>ЭСТОНСКИЙ БУКВАРЬ <i>У опушки в день ненастный Повстречали зверя. Мы ему сказали: "Здравствуй!" Зверь ответил: "Тере" И сейчас же ясный луч Появился из-за туч...</i> [...] - Там фигурирует зверь. - Ну. - Это что же получается? Выходит, эстонец-зверь? Я-зверь? Я, инструктор Центрального Комитета партии, -зверь?! - Это же сказка, условность. Там есть иллюстрация, Ребятишки повстречали медведя. У медведя доброе, симпатичное лицо. Он положительный... -Зачем он говорит по-эстонски? Пусть говорит на языке одной из капиталистических стран... - Не понял. - Да что тебе объяснять! Не созрел ты для партийной газеты, не созрел.</p>	<p>"ESTONIERAZKO ALFABETOA <i>Basoko bidezidorrean, egun euritsua zenean oso, Pizti bat topatu genuen. Guk esan genion: Kaixo! Piztiak erantzun zigun: Tere¹⁰! Eta argi-izpi bat kolpera Jausi zen hodeien aurrera"</i> [...] - Hor animalia bat agertzen da. - Eta? - Zer esan nahi duk horrekin? Estoniarrak animalia bat dela? Ni animalia bat nauk? Ni, partiduaren Komite Zentraleko ikuskatzailea, animalia bat nauk? - Baina hori ipuin bat da, fikzioa. Hor dagoena ilustrazio bat besterik ez da. Umetxoek hartz batekin egiten dute topo. Hartzak aurpegi zintzoa, atsegina dauka. Pertsonaia positiboa da... - Zergatik hitz egiten dik estonieraz? Hitz egin dezala herrialde kapitalistaren bateko hizkuntzan... - Ez dut ulertzen. - Zera ulertuko duk hik! Ez daukakar partiduaren egunkari batean lan egiteko behar den heldutasun politikorik, ez daukakar...</p>
---	---

78. adibidean, itzultzaileak ez du itzulpen-baliabiderik baliatu behar izan txistea uler zedin, bere horretan dagoeneko oso adierazgarria baita, jatorrizko idazleak bere ezaugarri bereizgarri den ironiari esker, primeran islatzen delako aditzera eman nahi den ideia: estoniarrak "animaliek" bezala hitz egiten dute. Adibide honek oso ondo irudikatzen du errusiarrek probintzietako jendearekiko —kasu honetan, estoniarrekiko— duten ikuspegia, hau da, jende "ez zibilizatua", puntu basati bat dutenak. Irakurle euskaldunak txistea ulertzeko, ez du inolako zailtasunik izango, euskaldunei antzeko estereotipoak egozten baitzaizkie, hau da, herrikoiak direla, zakarragoak, gaztelania arrotz batez hitz egiten dutenak, etab.

¹⁰ "Kaixo" estonieraz (Itz.)

<p>Эстонцев я отличаю сразу же и безошибочно. Ничего крикливого, размашистого в облике. Неизменный галстук и складка на брюках. Бедноватая линия подбородка и спокойное выражение глаз. Да и какой русский будет тебе делать гимнастику в одиночестве...</p>	<p>Estoniarrak berehala eta akatsik gabe bereizi ohi ditutnik. Fisonomian ez zaie ezer zalapartatsurik edo neurrigabekorik nabari. Gorbata beti gainean eta galtzetako tolesdura, berriz, zuzen. Kokotsaren arrastoa ez oso markatua eta begietan baretasuna. Gainera, gimnasia-ariketak bakarka egingo dituen errusiarrik ez da munduan...</p>
--	---

Estoniarren deskribapena ageri da 81. Adibidean. Euskal irakurleak segituan ulertuko du errusiarren eta estoniarren artean ezberdintasunak daudela. Dovlatovek errusiarrez trufatzeko autoironia bat gehitzen du adibidearen amaieran, baina hori ulertzen zailagoa izan daiteke euskal irakurlearentzat. Izan ere, euskaldunok errusiarrenganako dugun estereotipo orokorra ez da errusiarrek euren buruaz duten irudiarekin bat etortzen: errusiarrak animalia sozialak dira, eta dena elkarrekin egiten dute, estoniarrak baino sozialagoak eta naturalagoak dira. Euskaldunok, ordea, gizarte serio eta hotz bat irudikatzen dugu Errusiaz pentsatzean, hortaz, txistea ez da ondo ulertzen.

b. Politika

i. SESBeko ideologia eta propaganda

-Вы, конечно, беспартийный ?	- Zu, jakina, ez zara partiduko kide.
-------------------------------------	--

38. adibidea eleberriaren hasieran ageri da. SESBeko Alderdi Komunista lehen aldiz aurkezten zaio euskal irakurleari, partiduaren izen osoa aipatu gabe, noski. Euskal irakurlearentzat arazoa suposa dezakeena testuinguruaren falta da, hau da, errusiar kulturen sartua ez dagoen norbait eta SESBaren inguruan gutxi dakien irakurleak agian ez du lehen irakurrian ulertuko zer partiduz ari den Dovlatov. Itzultzaileak jakintzat ematen du, eta azalpen gehigarririk eman gabe itzuli egin du. Kontzeptua plazaratzen den lehen aldia denez gero, komenigarria litzateke akaso aposizio bidez (*partidu komunistako kide*), edo oin-ohar baten bidez, azalpen argitzaile bat ematea, euskal irakurlea hasieratik argi izan dezan zein den testuingurua. Dena dela, SESBaren inguruan gutxi jakinda ere, ez da zaila partidua identifikatzen, aukera gutxi baitzeuden garai hartan...

<p>-Вы допустили грубую идеологическую ошибку.</p> <p>-?</p> <p>-Вы перечисляете страны...</p> <p>-Разве нельзя?</p> <p>-Можно и нужно. Дело в том, как вы их перечисляете. В какой очередности. Там идут Венгрия, ГДР, Дания, затем-Польша, СССР, ФРГ...</p> <p>-Естественно, по алфавиту.</p> <p>-Это же внеклассовый подход, - застал Туронок,- существует железная очередность. Демократические страны-вперед! Затем-нейтральные государства. И, наконец,- участники блока...</p>	<p>- Hutsegite ideologiko larri bat egin duzu.</p> <p>- ?</p> <p>- Herrialdeak aipatu dituzu...</p> <p>- Hori ezin al da egin?</p> <p>- Egin daiteke eta egin beharrekoa da gainera. Kontua da nola aipatzen dituzun, zein segidatan. Lehendabizi Hungaria, Alemaniako Errepublika Demokratikoa eta Danimarka aipatzen dituzu eta ondoren, Polonia, SESBa eta Alemania Federala...</p> <p>- Noski, errusiar alfabetoaren arabera.</p> <p>- Baina hori ez dator bat klase sozialen araberako ikuspegiarekin!! –esan zuen Turonokek orroka-. Badago jarraitu beharreko ordena mugiezin bat: lehendabizi herrialde demokratikoak! Ondoren estatu neutralak. Eta azkenik, bloke kapital...</p>
--	---

2. adibideak primeran islatzen du sobietar sistemaren estutasuna. Euskal irakurleak segituan ulertuko du, horrelako sistema batean zein erraza zen akats ideologikoak egitea. Kasu honetan, munduko herrialdeen zerrenda batean, hurrenkera desegokia leporatzen zaio Dovlatovi. Jatorrizko testuan, *no alfavituy* ordenatu dituela adierazten du. Hori euskarara ekartzerakoan, itzultzaileak zailtasunak izan ditzake, errusierak eta euskarak alfabeto ezberdinak erabiltzen dituztelako, eta beraz, herrialdeen hurrenkera ezberdina izango delako. Itzultzaileak herrialdeak alfabeto latinoaren arabera ordena zitzakeen, baina horrek funtzionatzea ez da hain erraza, ordena ideologia eta alfabetoan oinarrituta dagoelako, eta beraz, hurrenkera errusierazko alfabetoaren arabera behar du, jarraian doan azalpen ideologikoak zentzua izan dezan. Kontua da, euskal irakurleak beharbada ez duela gogoan izango errusierak alfabeto zirilikoa erabiltzen duela. Ondorioz, itzultzaileak *errusiar* hitza gehitzen du bere itzulpenean, euskal irakurlearengan gaizki-ulerturik egon ez dadin.

Bestalde, aipatutako azalpen ideologiko horrekin, sobietar propaganda nonahi zegoela aditzera ematen zaio irakurleari, hurrenkera “egokia” bestelakoa izan behar zuelako: herrialde demokratikoak lehendabizi, neutralak ondoren, eta bloke kapitalekoak

azkenik. Jatorrizko testuan, *участники блока* horretan ez dago kapitalismoarekiko erreferentziarik, baina ulertzen da hori dela esan nahi duena. Horregatik, itzultzaileak bere irudimenaz baliatu behar izan da, euskal irakurleari argi uzteko, zergatik izan behar diren bloke kapitalistako herrialdeak zerrendan azkenak. Argi uzten zaio irakurleari geratzen da, garai hartako mundua bi bloke nagusitan banatuta zegoelaren ideia.

Beraz, adibide honetan itzultzaileak hautu egokiak egin dituela esan daiteke. Euskal irakurlea kontuan hartu du, errusiar kulturari zein sobietar ideologiari buruz izan zitzakeen ulermen hutsuneak betez.

<p>- И помните: открытый редакционный конкурс-продолжается. Лучшие материалы будут удостоены денежных премий. А победитель отправится в ГДР...</p> <p>-Добровольно?-спросил я.</p> <p>-То есть?</p> <p>-Меня даже в Болгарию не пустили. Я документы весной подавал.</p> <p>-Пить надо меньше,-сказал Туронок.</p> <p>-Ладно,-говорю,-мне и здесь неплохо...</p> <p>[...]</p> <p>-Вы забыли, что продолжается конкурс. Авторы хороших материалов будут премированы. Лучший из лучших удостоится поездки на Запад, в ГДР.</p> <p>-Логично. А худший из худших-на Восток?</p> <p>-Что вы этим хотите сказать?</p> <p>-Ничего. Я пошутил. Разве ГДР-это Запад?</p> <p>-А что же это, по-вашему?</p> <p>-Вот Япония-это Запад!</p> <p>-Что?!-испуганно вскричал Туронок.</p> <p>-В идейном смысле,-добавил я.</p>	<p>- Eta gogora ezazu erredakzioko lehiaketa irekiak aurrera jarraitzen duela. Materialik onenek dirutan jasoko dituzte sariak. Eta garailea Alemaniko Errepublika Demokratikora joango da...</p> <p>- Bere borondatez? –galdetu nuen nik.</p> <p>- Zer esan nahi duzu?</p> <p>- Niri Bulgariara joaten ere ez didate utzi. Udaberrian aurkeztu nituen agiriak.</p> <p>-Gutxiago edatea da zuk egin behar zenukeena –esan zuen Turonokek.</p> <p>Ongi da –esan nuen– hemen ere ez nago hain gaizki...</p> <p>[...]</p> <p>Ahaztu zaizu lehiaketak aurrera jarraitzen duela. Material onenen egileak sarituko dira. Onenetan onenak, mendebalderako bidaia bat irabaziko du, Alemaniko Errepublika Demokratikora.</p> <p>Zentzuzkoa dirudi. Eta txarrenetan txarrenak, Ekialderakoa?</p> <p>Zer esan nahi duzu horrekin?</p> <p>Ezer ere ez. Txantxetan ari nintzen.</p> <p>Alemaniko Errepublika Demokratikoa mendebaldea al da?</p> <p>Eta zure ustez zer da, bada?</p> <p>Adibidez Japonia; hori bai dela mendebaldea!</p> <p>Zer? –egin zuen oihu Turonokek, ikaraturik.</p> <p>Ideologiaren ikuspuntutik –gaineratu nuen.</p>
---	---

40. adibideak ere ondo islatzen du sobietar propaganda eta garai hartako gizarte eta politikaren nazioarteko banaketa ideologikoa: ekialdea (sozialismoa), alde batetik, eta

mendebaldea (kapitalismoa), bestetik. Euskal irakurleak erraz identifikatuko du banaketa hori. Adibide honek iradokitzen du, alde batetik, gizarteak SESBetik mendebaldeko blokerak bidaiatzeko zuen nahia, eta bestetik, aukera hori izatea pentsaezina den opari edo sari bat zela, SESBetik beste herrialdeetara bidaiatzeko debekuak ugariak baitziren. Itzulpen egokia egin du itzultzaileak; adibide adierazgarria da, sobietar pentsamendua ulertzeko, eta ez du azalpen gehigarrik eskatzen euskal irakurleari testuinguruaren ideia orokor eta argi bat igortzen zaiolako.

Bestalde, aipatzekoak dira, itzultzaileak egin behar izan dituen hautuak. Esate baterako, ГДР itzultzeko, euskarazko siglak (AED) eman ordez, izen osoa ipini du: *Alemaniko Errepublika Demokratikoa*. Euskal irakurleari argi utzi nahi izan dio zein herrialdez ari den, siglak bakarrik eman izan balitu, herrialdea identifikatzen zailtasunak izango zituzkeen. Bestalde, itzultzaileak jakintzat eman du Bulgaria ekialdeko blokearen barnean sartzen zela, eta bere horretan ipini du herrialdearen izena. Dena den, Bulgaria zein blokeren barruan kokatu jakin gabe ere, testuinguru orokorra ulertzen da, eta ez dago oin-ohar edo azalpen gehigarri baten beharrik.

-Есть вакансия. Газета "На страже Родины".	- Bazagok postu bat hutsik geratu dena. <i>Aberriaren zaintzan</i> egunkarian.
--	--

1. adibidean, itzultzaileak *На страже родины* egunkariaren izena hitzez hitz itzuli du: *Aberriaren zaintzan*. Sobietar egunkariaren euskal bertsiorik ez dagoenez, itzultzaileak izena euskaratzeko lizentzia hartu du. Horretarako, izenaren itzulpen literala edo kalkoa egin du, eta kasu honetan, funtzionatzen du. Bestalde, izen berezia izanik, errusieraz uzteko tentazio izan zezakeen itzultzaileak, betiere transliteratuta, noski, horrela jokatzeko tradizio baitago: *Na strazhe rodini egunkarian*. Adibide bat ematearren, euskarazko egunkari bat, demagun *Berria* egunkaria, errusierazko testu batean erreferentziatzen dela, eta honako izena ematen zaiola: *Новая газета*. Zentzuzkoena euskarazko izena uztea izango litzateke, eta parentesien artean edo oin-ohar baten bidez, errusierazko itzulpena ematea, hots, *газета Беррия (Новая газета, на баскском языке)*.

Kasu honetan, itzultzaileak egunkari horren izena bere horretan uzteari uko egin dio, egunkariaren izen bera, *Berria* ez bezala, esanguratsua delako. *Aberriaren zaintza* horrek, hain zuzen, propaganda ofizialerako egunkaria dela ematen du aditzera, eta

ñabardura hori galtzea agian gehiegizkoa litzateke, izan ere, euskal irakurlearentzat sobietar ideologia hobeto ulertzeko hurbilpen gisa har daiteke adibide hori.

29. adibidean, bestelako hautua egin du itzultzaileak:

Слово предоставили какому-то ответственному работнику "БХту лехт".	<i>Õhtu leht</i> ¹¹ egunkariko goi-karguren bati eman zioten hitza.
--	--

Itzultzaileak estonierazko izena uztea erabaki du, eta oin-ohar baten bidez eman du egunkariaren izenaren itzulpena. Adibide berdintsu horien aurrean itzultzaileak hautu ezberdinen alde egin du, arrazoi nagusi batengatik: lehenengo adibidean, izenak berak badu esanahi esanguratsu bat, eta horregatik, hartu du izena euskaratzearen aldeko erabakia. Bada izen horrek SESBren ideologia abertzalea agerian uzten du, eta euskal irakurlea irakurgaiaren testuingurura hurbiltzeko aukera aproposa ikusi du itzultzaileak. 29. adibidean, ordea, izena euskaratzeak ez lioke beste inolako kutsurik gehituko testuari.

<p>"БХту лехт". Я уловил одну фразу: "Отец и дед его боролись против эстонского самодержавия" .</p> <p>-Это еще что такое?!-поразился Альтмяэ,-В Эстонии не было самодержавия.</p> <p>-Ну, против царизма,-сказал Быковер.</p> <p>-И царизма эстонского не было. Был русский царизм.</p> <p>-Вот еврейского царизма действительно не было,-заметил Фима,-чего нет, того нет.</p>	<p><i>Õhtu leht</i>¹² egunkariko goi-karguren bati eman zioten hitza. Esaldi bat harrapatu nuen: "Bere aita eta aitona estoniar autarkiaren aurka borrokatu ziren".</p> <p>- Zer duk hori bada?! –esan zuen Altmäek harriturik– Estonian ez duk sekula autarkiarik izan.</p> <p>- Tira, Tsarismoaren aurka –esan zuen Bykoverrek.</p> <p>- Estoniar Tsarismorik ere ez duk izan. Errusiar Tsarismoa bai, hori izan zuan.</p> <p>- Ziur izan ez dena, Tsarismo judua duk –nabarmendu zuen Fimak– ez dagoen lekutik, ezin atera.</p>
---	--

Aurreko adibideari jarraitzen dion testuaren atzean, sobietar propaganda ezkututzen da: iraultza aurreko Estonia kritikatzeko da, sobietar propagandak Baltikoko herrialdeak inbaditzea justifikatzeko erabiltzen dituen argumentuekin, hau da, SESBren bertsio-ofiziala Estonia askatu zutela da, eta ez inbaditu. Adibidean ikus daitekeenez, pertsonaia

¹¹ (Est.) Arratsaldeko Egunkaria (Estonieraz batera idatzi beharrekoa: *Õhtuleht*).

¹² (Est.) Arratsaldeko Egunkaria (Estonieraz batera idatzi beharrekoa: *Õhtuleht*).

estoniarra baieztapen horren aurrean harritu egiten da, propagandaren aurkako jarrera hartuz. Euskal irakurleak ulertu egingo du, baieztapen horren atzean nolabaiteko iruzurra dagoela, baina testuinguru historiko orokorraren hutsunea izango du.

<p>-А вы?-Белла повернулась к Жбанкову...</p> <p>-Я тут воевал,-сказал Жбанков,-ну и остался... Короче-оккупант...</p> <p>-Сколько же вам лет?</p> <p>-Не так уж много, сорок пять. Я самый конец войны застал, мальчишкой. Был вестовым у полковника Адера... Ранило меня...</p>	<p>- Eta zu? –Bella Jbankov zegoen aldera jiratu zen.</p> <p>- Nik gerra hemen egin nuen –esan zuen Jbankovek– eta bertan gelditu nintzen... Hitz batean: okupatzailea naiz...</p> <p>- Baina zuk zenbat urte dituzu?</p> <p>- Ez hainbeste. Berrogeita bost. Gerraren azkeneko zatia harrapatu nuen, artean haur bat nintzela. Ader koronelaren ordenantza izan nintzen... Zauritu egin ninduten...</p>
--	---

57. adibidean, Jbankov izeneko pertsonaiak ironiaz esaten du, Estonian *okupatzailea* dela. Ironia horren adierazle dira hitzaren ostean doazen hiru puntuak. Ironia hori ulertzeko arazoak izan ditzake euskal irakurleak. Aurreko adibidearekin lotuta, testuinguru historikoa ulertzea garrantzitsua da, izan ere, *okupatzailea* dela esaten duenean, aditzera ematen dena, SESBk Estonia okupatu zuela da, eta hori komentario oso arriskutsua zen garai hartan. Izan ere, aurreko adibidean aipatu bezala, SESBren arabera, Estonia ez zuen okupatu, askatu baizik. Sobietar propagandaren adierazle da adibide hau ere. Euskal irakurleak hori irakurtzean, ulertu egingo du, gerra egin eta gero Estonian bizitzen geratu izanagatik dela okupatzailea, baina azalpenik gabe nekez lotuko du testuinguru historikoarekin eta sobietar propagandarekin. Dovlatovek behin baino gehiagotan plazaratzen duen gaia izanda, horren inguruko azalpena ematea ez legoke lekuz kanpo, betiere kontuan izanda, irakurleak autonomia izan behar dela: izaera kritikoa izan behar du, eta benetan horren inguruan jakin nahi izanez gero, bere kabuz baliabideak bilatzeko gai izan behar da. Hortaz, itzultzaileak ezin du entziklopedia oso bat oin-oharren bitartez liburuan txertatu, baina testuingurua ulertzen lagungarria izan daitekeen azalpentxoren bat eman dezake.

Bestalde, alderdi ortotipografikoari erreparatuz, adibide honetan ez ezik, liburu osoan zehar goian aipatutako hiru puntuak asko erabiltzen ditu Dovlatovek, erdi brometan erdi serio ari dela adierazteko, esan gabeko gauza asko airean geratzen baitira. Kontua da, hiru puntuen erabilera hori ez-ohikoa dela euskaraz, eta horrek euskal irakurlearen

ulermenean arazoa ekar dezake, baita zalantza piztu ere: hiru puntuak liburuan hizketan dabilen pertsonaia, zalantzati, bere hitzen bila ari delako, ageri dira, edo ironia-kutsua adierazteko, nahita ipini ditu idazleak? Itzultzaileak argi dauka, bigarren arrazoi horregatik dela, eta ondorioz, bere itzulpenean kalkatu egin du hiru puntuak erabiltzearen joera hori. Horrek euskal irakurleengan sortzen duen efektua, ordea, ez da errusierazko testuak errusiar irakurleengan sortuko duen berbera. Agerian geratzen da, beraz, itzultzailea beharbada errusiar kulturaren sartuegi dagoela, eta hori garrantzitsua izan arren, neurtu beharreko alderdi bat da, euskal irakurlea aintzat hartzea bezain garrantzitsua delako.

-Нет, вы только послушайте! Он же темный, как Армстронг!	- Ez da posible, entzun iezaiozue! Armstrongek ilargian zeukana baino argi gutxiago dauka honek buruan!
--	--

Bi blokeen arteko banaketa hori etengabe aipatzen da liburuan zehar, horrenbestez, 77. adibidea irakurrita, estatubatuarrez trufatzen ari direla dirudi. Garai hartako historiaz zertxobait dakien irakurle batek, Espazioko lasterketarekin lotuko luke adibide hau. Kontua da, itzultzaileak jatorrizko testuan jartzen duena gaizki ulertu duela, eta ondorioz, jatorrizkoan ageri den hitz-jokoa gaizki itzuli duela. Errusieraz *тёмный* horrek bi adiera izan ditzakeela adibide honetan: iluna edo beltza, alde batetik, eta tontoa, bestetik. Bi adiera horiekin jolastuz, Dovlatovek hitz-joko polita sortu du. Itzultzaileak, ordea, bigarren adierarekin geratu da, eta “buruan argi gutxi daukana” horrekin jolastu du. Gainera, Armstrong hori, Neil, hau da, astronauta estatubatuarra dela suposatuz, *ilargia* sartu du, eta hitz-joko polita sortu du XHn ere. Arazoa da, ziurrenik Armstrong hori ez dela Neil, Louis baizik. Eta Neil ez bezala, Louis beltza zen. Hortaz, itzulpenakats gisa har daiteke adibide hau. Dena dela ere, ez da hutsegite larria, jatorrizkoak biltzen duen hitz-joko berbera ez den arren, itzulpenean gordetakoak ulertu egiten delako.

Тут я заметил группу пионеров. Они неловко пробирались между столиками. Видно, их задержал ливень.	Orduan, pionero ¹³ talde bati erreparatu nion. Mahai artean zebiltzan, ezeroso. Bistakoa zen euri zaparradak behartu
--	--

¹³ SESBko haurren erakunde ofizialeko kideak (Itzultzailearen oharra)

Пионеры несли громадную корзину с цветами.	zituela han geratzera. Haur haiek lorez beteriko saski erraldoi bat zeramaten.
--	---

Sobietar propagandaren barruan, SESBren doktrinamendurako sortutako erakunde baten izena identifikatu du jatorrizko testuan: *пионеры*. 36. adibidean, bitan ageri den terminoa da, eta itzultzaileak bi itzulpen-estrategia erabili ditu termino hori bere itzulpenean jasotzeko. Lehen aldiz ageri denean, transferentzia bidez ekarri du terminoa euskarara, eta jarraian oharra ipini dio. Horrela, sobietar errealitatera hurbiltzeko aukera ematen dio euskal irakurleari. Bigarrenean, ordea, terminoaren baliokide funtzionala eman du, hau da, termino zehatza eman ordez, kulturalki neutrala den hitza hautatu du. Itzultzaileak, behin oin-oharra erabili duela, jatorrizko testuarekiko fideltasuna gordetzearren, termino zehatza erabiltzearen alde jo zezakeen berriz ere, azalpena dagoeneko eman duelako. Hala eta guztiz ere, beharrezkoa ikusi du erakunde horretako kideak haurrak zirela zehaztea, eta oin-oharrean txertatu beharreak, jatorrizko testuan jaso du informazio hori. Kasu honetan, bi estrategiek funtzionatzen dutela argi dago, baina beharbada gehiegizko azalpenak gehitu ditu itzultzaileak. Nolanahi ere, bigarren adibidean, modu egokian eta naturalki txertatuta dago azalpena, ez da jario eteten eta hautatutako baliokide funtzionalak bere funtzioa betetzen du, hots, euskal irakurlearen eta sobietar errealitate eta kontzeptuen arteko zubia eraikitzen du.

Я помахал ему рукой. В ответ Буш поднял кулак-"рот фронт!". Затем растопырил пальцы-"виктори!".	Eskuaz agur egin nion. Erantzun moduan, Bushek ukabila altxatu eta esan zuen: Rot front! Ondoren, hatzak bananduz: Victory!
---	---

25. adibidean, itzultzaileak transferentzia bidez ekarri du "*Rot front!*" esaera euskarara. Alemanezko kontzeptu politikoa da, *fronte gorria* esan nahi du, eta internazionalismoari erreferentzia egiten dio. Euskal irakurleak beharbada ez du erreferentzia ulertuko. Gaztelaniazko "*¡No pasarán!*" gerra-garrasiarekin konpara daitekeen esaldia da, fenomeno berdina da, izan ere, Errusian, esaterako, ezaguna den esaldia baita. Hortaz, itzultzaileak esaldia alemanez utzi beharreak, "*Ez dira pasako!*" euskarazko itzulpena eman zezakeen irakurleari erreferentzia ulertarazteko. Baina hori ez litzateke zilegi izango, SESBen "*¡No pasarán!*" hori ezagutzen zuten, baina argi dago,

alemanezkoa erabiltzen zutela. Horrelako kasuetan, garrantzitsua da, jatorrizkoari fidel izatea, izan ere, euskaldun batek “*Rot front!*” esango ez lukeen bezala, sobietar batek ez luke “*¡No pasarán!*” esango. Itzulpenean alemanezko esaldia gordetzea ondo dago, garaiarekiko eta kulturarekiko koherenteagoa delako, baina beharbada ohar argitzaileraren bat gehitzea ez legoke lekuz kanpo.

c. Gizartea

i. Hipokrisia sozialista

- Internazionalismoa

<p>-Слушайте,-говоря,-это любопытно. Вырисовывается интернационализм. Дружба народов... Они зарегистрированы? [...]</p> <p>-Генрих францевич, мне неловко подолгу занимать телефон... Только что родился мальчик. Его отец-дружественный нам эфиоп.</p> <p>-Вы хотите сказать-черный?</p> <p>-Шоколадный.</p> <p>-То есть-негр?</p> <p>-Естественно.</p> <p>-Что же тут естественного?</p> <p>-По-вашему, эфиоп не человек?</p> <p>-Довлатов,-исполненным муки голосом произнес Туронок,-Довлатов, я вас уволю... За попытки дискредитировать все самое лучшее... Оставьте в покое своего засранного эфиопа! Дождитесь нормального-вы слышите меня?-нормального человеческого ребенка!..</p>	<p>- Aizu –esan nuen– kurioa da. Internazionalismoa forma hartzen ari da. Herrien arteko adiskidetasuna... Erroldatuak daude? [...]</p> <p>- Heinrich Franzevitx, ezerosoa zait nirea ez den telefonoa luzaroan erabiltzea. Mutiko bat jaio berri da. Bere aita gure herriaren adiskide etiopiar bat da.</p> <p>- Beltza dela esan nahi duzu?</p> <p>- Txokolate kolorekoa.</p> <p>- Hau da, afrikarra?</p> <p>- Normala den bezala.</p> <p>- Zer dauka horrek normaletik?</p> <p>- Zure iritziz, etiopiarra ez da gizakia?</p> <p>- Dovlatov –esan zuen Turonokek sufrimenduz beteriko ahots batez– Dovlatov, kalera bidaliko zaitut... Inon diren gauza on guztiak deskreditatzeko saiakerengatik... Uztazu bakean zure etiopiar alu hori! Itxaron ezazu haur normal bat atera arte. Entzuten didazu? Haur jaioberri normal bat atera arte!</p>
---	--

45. adibidean, internazionalismoari egiten zaio erreferentzia berriz ere, sobietar ideologia eta propagandaren alderdi garrantzitsu gisa. Itzultzaileak ez du estrategia

berezirik baliatu behar izan, adibidea bera oso adierazgarria delako. Agerian geratzen da, internazionalismoa eta “herrian arteko adiskidetasun” hori kolokan dagoela, ume beltz jaioberri bat ez baita biztanle sobietar gisa onartzen. Euskal irakurleak argi ulertuko du, SESBren “hipokrisia soziala”: internazionalismoa goraiatzeko da, baina praktikan, gizarte atzeratu eta arrazista batean bizi dira.

- Antisemitismoa

<p>-Приезжай, ребенка сфотографировать в юбилейный номер. У Штейна сын родился. Гонорар, между прочим, двойной... -Ты хочешь об этом ребенке писать? -А что? -А то, что Штейн-еврей. А каждого еврея нужно согласовывать. Ты фантастически наивен, Серж.</p>	<p>- Etor hadi, urteurreneko alerako haur bati argazkia ateratzera. Steinek seme bat izan dik. Saria, bide batez, bikoitza duk... - Haur horri buruz idatzi nahi al duk? - Zergatik galdetzen duk? - Stein judua delako, horregatik. Eta edozein juduri buruz idazteko adostu beharra zagok. Hire inozokeria ez duk sinestekoa, Sergei.</p>
<p>-Серж, объясни мне, почему евреев ненавидят? Допустим, они Христа распяли. Это, конечно, зря. Но ведь сколько лет прошло... И потом, смотри. Евреи, евреи... Вагин-русский, Толстиков-русский. А они бы Христа не то что распяли. Они бы его живым съели... Бот бы куда антисемитизм направить. На Толстикова с Вагиным. Я против таких, как они, страшный антисемитизм испытываю. А ты?</p>	<p>- Sergei, azal iezadak zergatik gorrotatzen dituen jendeak juduak. Demagun, Jesukristo gurutzatu zutelako dela. Hori, noski, ez zuan zuzena izan. Baina zenbat urte igaro dituk?... Eta gainera, begira ezak. Juduak, juduak... Vagin errusiarra duk, Tolstikov errusiarra duk. Eta horiek Jesukristo gurutzatu ez, bizirik jango ziketean... Hara nora zuzendu beharko litzatekeen antisemitismoa. Tolstikov eta Vaginen aurka. Nik horiek bezalakoan aurka antisemitismo izugarria sentitzen diat. Eta hik?</p>

47. eta 139. Adibideek ere, SESBren hipokrisia sozialaren ideia indartzen dute. Sobietar politika internazionalismoan oinarritzen da, baina gizarte antisemita da, eta juduen aurkako jarrera arrazistak ez dituzte ezkututzen. Euskal irakurleak berehala izango du horren berri, adibideak oso argiak direlako. Hortaz, itzultzaileak ez naturaltasunez itzuli ditu pasarte hauek; ez du inolako itzulpen-estrategia bereziren beharrik izan, euskal irakurleari Dovlatovek bere eleberrian kritikatzeko duen hipokrisia soziala uler dezan.

- Sexua

<p>-Чего тебя в газету потянуло? -А что? -Много врать приходится. -Нет. Я делаю корректуру. Сама еще не пишу. Писала статью, говорят-нехорошо... -О чем? -О сексе. -О чем?! -О сексе. Это важная тема. Надо специальные журналы и книги. Люди все равно делают секс, только много неправильное...</p>	<p>- Zerk eraman zaitu egunkarian lan egitera? - Nola zerk? - Gezur askotxo esan behar da. - Ez. Nik zuzenketak egiten ditut. Nik neuk ez dut oraindik idazten. Artikulu bat idatzi nuen, baina esan zidaten ez zela argitaratzeko modukoa... - Zeri buruz? - Sexuari buruz. - Zeri buruz?! - Sexuari buruz. Gai garrantzitsua da hori. Aldizkari eta liburu espezializatuak behar genituzke. Zeren jendeak bestela ere berdin-berdin egingo baitu sexua; arazoa da gauza asko ez direla behar bezala egiten...</p>
---	---

SESBen zentsura handia zegoen, batez ere, tabua ziren gaiekin. 55. adibidean, sexuaren tabua plazaratzen zaio irakurleari. SESBen famatu egin zen lelo bat: *« СССР нет секса*. Adibide hau esaldi horren isla da, sexuaren inguruko informazioaren beharra zegoela aditzera ematen da, SESBen sexurik ez egon arren, jendeak “berdin-berdin egingo baitu sexua”. Euskal irakurleak agian ez du adibide honen atzean dagoen leloa ezagutuko, beharbada ez du ezta jakin ere egingo SESBen sexuarekiko ikuspegi (eta politika) hain zorrotza zutenik. Baina itzulpena nahiko argia da, eta jatorrizkoak helarazten duen ideia ondo jasotzen duela esan daiteke. Horrenbestez, azalpen gehigarririk ez da behar, ondo ulertzen baita, zein zen SESBen sexuaren gaiak hartzen zuen tokia.

Hipokrisia sozialistaren adibide bikaina dugu hau, kontraesan handia islatzen baitu: SESBren propagandaren arabera, iraultza egiten ari ziren, teorian munduko herrialde sozialena eta progresistena zena, euren ikuspegitik munduko aurreratuenena, baina aurreko adibideetan ikus daitekeenez, alderdi askotan oso atzera geratu ziren. Gizarte kontserbatzailea dugu horren adibide.

- Homosexualitatea

<p>- Директор театра-бывший оберлейтенант СС. Кроме того, он голубой. -Что значит-голубой?</p>	<p>- Antzokiko zuzendaria SS-etako teniente ohia da. Gainera, atzelaria da. - Zer esan nahi du “atzelaria” horrek? - Hala esaten zitzaien lehen homosexualiei. Ez al zintuen gogaitu?</p>
--	--

<p>-Так раньше называли гомосексуалистов. Он к вам не приставал?</p> <p>[...]</p> <p>-У нас за это судят,-похвастал я.</p> <p>-А за геморрой у вас не судят? -проворчал француз...</p>	<p>[...]</p> <p>- Gure herrialdean, horregatik, jendea epaitu egiten dute –esan nuen nik harro.</p> <p>-Eta zuen herrialdean hemorroideengatik ez al dute jendea epaitzen? –esan zuen frantsesak marmar batean...</p>
--	---

Errusieraz homosexualiei *голубой* esaten zaie erregistro informalean, eta itzultzaileak *atzelari* gisa itzuli du. Euskal irakurleak zailtasunak izan ditzake hasiera batean, *atzelari* hitzarekin zer esan nahi den ulertzeko. Izan ere, adiera bat baino gehiago duen hitza da (*голубой*, bezala), baina errusieraz askoz ere gehiago erabiltzen den hitza da. Euskaraz, ordea, baliokide ohikoago baten alde egin zezakeen itzultzaileak: *maritxu*, esaterako. Dena den, egia da, testuinguruan bertan azaldu egiten dela, hitz horren esanahia, beraz, nahiz eta lehen irakurrian hitzak esan nahi duena ulertzeko arazoak izan, testuinguruari esker zalantza hori argitzen da.

136. adibideak, gainera, argi uzten du zein den SESBen homosexualenganako ikuspegia. Homosexuala izateagatik jendea epaitzen dutela aipatzen da, eta gainera, horretaz harro daudela. Agerian geratzen da, beraz, blokeen eta kultura ezberdinen arteko talka soziala, frantsesak baieztapen horren aurrean erakusten duen desadostasunarekin.

- Alkoholismoa

<p>-Давайте без тостов,-предложил Слапак,-за все хорошее!</p>	<p>-Tira, toparik egin gabe,¹⁴– proposatu zuen Slapakek– gauza on guztiengatik!</p>
--	---

Itzultzaileak errusiar ohitura bat identifikatu egin du: “Errusian, tartean hildakoak daudenean, topa egin gabe edan behar da” (*не чокаются*). 34. Adibideak agerian uzten du itzultzailea errusiar kulturaren oso sartuta dagoela, eta horrek jatorrizkoan *без тостов* esaten denean oin-oharran gehitutakoa interpretatzera eramaten du itzultzailea. Egia da, itzulpen lan on bat gauzatzeko, SHren kultura ondo ezagutu behar dela, baina, kasu

¹⁴ Errusian, tartean hildakoak daudenean, topa egin gabe edan behar da.

honetan, agian itzultzailea jatorrizko idazleak adierazi nahi zuena baino haratago joan da, eta akaso bere interpretazioa ez da zuzena izan. Beharbada pertsonaia horrek proposatzen duena, besterik gabe, brindisik gabe edatea da. Horrek agerian uzten du, SESBen zegoen edateko ohitura, nahia eta beharra: toparik gabe edaten dute, denborarik ez galtzeko eta lehenbailehen edateko...

Dena dela ere, aipatu beharra dago, itzultzailearen lana oso zaila dela, horrelako erreferentzia kultural ugari kudeatu behar dituelako. Askotan erreferentziak ezkutatuta daudela dirudi eta identifikatzen oso zailak izan ohi dira.

- Morala

Я спрятал бутылку в карман и пошел заканчивать статью на моральную тему .	Botila poltsikoan ezkutatu nuen eta moralari buruzko artikulu bat amaitzera joan nintzen.
---	---

Hipokrisia da berriro ere 175. adibidean protagonista. Sobietar morala eztabaidagarria dela agerian geratzen da. Moralaren inguruko artikulu bat “mozkor” batek idaztea guztiz kontraesankorra da, beraz, euskal irakurleak ondo ulertuko du, sobietar erregimen eta gizartea hipokrisiaz beterik dagoela.

4. Ondorioak

Edozein motatako testu bat itzultzeko, sorburu- zein xede- hizkuntzak menperatzea oinarritzkoa da. Baina itzulpen-lan egoki bat egiteko, hori ez da nahikoa; batez ere, Dovlatoven *Konpromisoa* bezalako obra baten aurrean, hots, kultura erreferentziaz beteriko obra baten aurrean. Tankera horretako obrak itzultzeko, alde batetik, itzulpengintzak eskaintzen dituen itzulpen-baliabide eta estrategiak ezagutzea garrantzitsua da, eta bestetik, sorburu- eta XHz gain, hizkuntza horien kulturaren ezagutza zabala izatea ezinbestekoa da ere.

Erreferentzia kulturalen itzulpena erronka izaten da itzultzailearentzat, XHn eta kulturaren ezagunak ez diren kontzeptuak eta ideiak ahalik eta modu naturalean helarazi behar zaizkielako irakurleari. Itzulpen-prozesuan sortzen diren zailtasun horiei aurre egiteko, itzultzaileak beharrezkoa du itzulpen-estrategia ezberdinez baliatzea. Dovlatoven *Konpromisoa* eleberraren itzulpen-lanaren azterketak erakusten duenez, itzultzaileak nagusiki hiru estrategia erabili ditu erreferentzia kulturalak itzultzeko: transferitzea, gehikuntza eta oharrak. Horiei esker, itzultzaileak irakurketaren ulermena erraztu dio euskal irakurleari, sorburu-kultura harengana hurbilduz.

Garrantzitsua da itzulpen-prozesuan zehar, itzulpen-estrategia ezberdinak uztartzea. Alde batetik, itzultzaileak ezin du testua oin-oharrez bete, eta bestetik, ez da komeni testu guztia parafraasi bidez ematea. Baliabide ezberdinen arteko oreka mantentzea inportantea da, irakurketa arina izan dadin, eta ez nekagarria. Aztertutako lanaren itzultzaileak irtenbide aproposak topatu ditu, eta erreferentzia bakoitzak suposa zezakeen arazoaren zailtasun-maila bereizten trebea izan da: ezinbesteko azalpena behar zuten kontzeptuen aurrean, oin-oharra gehitu du (guztira 28), azalpen labur batekin erraz uler daitezkeen kontzeptuen aurrea, gehikuntzaren alde egin du, eta XHn ezagunagoak diren kontzeptuen aurrean, transferitzearen alde. Estrategia ezberdinak erabili izanak, ez du esan nahi itzultzailea bere hautuetan inkoherentea izan denik, itzulpen-prozesuan zehar izaera kritikoa izan duela baizik. Hau da, erreferentzia kulturek sor zezaketen arazoak zailtasun-mailaren arabera sailkatzeko gai izan da, eta sailkapen horri jarraikiz, estrategia baten edo bestearen alde egin du. Itzulpen-estrategiei dagokienez, oro har, itzulpen-lan orekatua dela esan daiteke.

Zailtasun-mailaren araberako sailkapen hori egiteko, kultura erreferentziaz irakurlearengan eragin dezaketen ulermen-zailtasunak identifikatu behar ditu

itzultzaileak. Horretarako, SH ezagutzeaz gain, itzultzailearentzat ezinbestekoa da hori hitz egiten den herrialdearen kulturaren murgilduta egotea. Herrialdearen historia, politika, gizartea, ohiturak eta bizimodua ezagutu behar ditu, betiere euskal irakurlea aintzakotzat hartuz. Itzultzaileak bere lanaren hartzailea gogoan izan behar du beti, itzultzaileak ezagutzen dituen kontzeptuak eta berarentzat logikoak diren ideiak ezin ditu jakintzat jo, euskal irakurleak ziurrenik horiek ulertzen zailtasunak izango dituelako. Horregatik da hain garrantzitsua, itzultzailearen izaera kritikoa: hausnarketa egin behar du itzultzaileak, sorburu-kultura ezagutzen ez duen irakurlearen azalean jarritz.

Beraz, itzultzailearen lana, jatorrizko testuaren ulermena bermatzea da, bai hizkuntzaren bai kulturaren aldetik. Horretarako itzultzaileak hautu ugari egin beharko ditu, eta ez da erraza oreka mantentzea. Izan ere, ahal den heinenean, euskal irakurleari erraztu behar zaio irakurketa, eta bestetik, irakurlea ez da ume bat, eta bere burua pixka bat behartu beharko luke sorburu-kulturara hurbiltzeko ahalegin bat eginez. Itzultzaileak bere esku dagoen guztia egingo du, irakurketa errazteko, baina egia da, irakurlea errusiar-sobietar historia eta kulturaren aurretiko ezagutza edo interes minimo bat izateak asko lagunduko lukeela.

5. Bibliografia

Dovlatov, S. (1981) *Kompromiss*. New York: Alfred A. Knopf.

Dovlatov, S. (2008) *Konpromisoa* (Itz.: Sancho Insausti, I.). Donostia: Hiria.

Elhuyar Hiztegia. in. Elhuyar Fundazioa. Sarean: <https://hiztegiak.elhuyar.eus/es/el>

Harluxet Hiztegi Entziklopedikoa. in. Eusko Jaurlaritza. Sarean: <http://www1.euskadi.net/harluxet/>

Newmark, P. (1988). *A textbook of translation*. Prentice-Hall

WIKIPEDIA. *Estancamiento brezhneviano*. Orriaren azken aldaketa: 2021eko urriaren 8a. https://es.wikipedia.org/wiki/Estancamiento_brezhneviano [Kontsulta: 2022/05/27]

6. Eranskinak

DOVLATOVEN KONPROMISOA ELEBERRIAREN ERREFERENTZIA KULTURALEN CORPUS ELEBIDUNA

	RU	EU
ERREFERENTZIA KULTURALAK		
1.	-Есть вакансия. Газета " На страже Родины ". Запиши фамилию- Каширин .	Bazagok postu bat hutsik geratu dena. Aberriaren zaintzan egunkarian. Apunta ezak abizen hau: Kashirin .
2.	-Вы допустили грубую идеологическую ошибку. -? -Вы перечисляете страны... -Разве нельзя? -Можно и нужно. Дело в том, как вы их перечисляете. В какой очередности. Там идут Венгрия, ГДР, Дания, затем-Польша, СССР, ФРГ... -Естественно, по алфавиту . -Это же внеклассовый подход , -застонал Туронок,- существует железная очередность. Демократические страны-вперед! Затем- нейтральные государства . И, наконец,- участники блока ...	- Hutsegite ideologiko larri bat egin duzu. - ? - Herrialdeak aipatu dituzu... - Hori ezin al da egin? - Egin daiteke eta egin beharrekoa da gainera. Kontua da nola aipatzen dituzun, zein segidatan. Lehendabizi Hungaria, Alemaniako Errepublika Demokratikoa eta Danimarka aipatzen dituzu eta ondoren, Polonia, Sobietar Batasuna eta Alemania Federala... - Noski, errusiar alfabetoaren arabera . Baina hori ez dator bat klase sozialen arabera ko ikuspegiarekin!! -esan zuen Turonokek orroka-. Badago jarraitu beharreko ordena mugiezin bat: lehendabizi herrialde demokratikoak! Ondoren estatu neutralak . Eta azkenik, bloke kapital ...
3.	Хлестаков был с Пушкиным на дружеской ноге, а мой знакомый Геныч вернулся из Москвы подавленный и тихий-Олжаса Сулейменова увидел в ЦУМе.	1. Gogolen Khlestakovek Pushkinekin adiskidetasun estua zuela esaten zuen, eta Genitx nire ezaguna, berriz, burumakutsur eta hizketarako gogorik gabe itzuli zen Moskutik, TSUM supermerkatuan Oljas Suleimenov idazlea ikusi zuela eta.
4.	Вера опьянела, целовала портрет Добролюбова : "Какие были люди!"	2. Vera mozkortu egin zen, eta Dobroliuboven ¹⁵ erretratuari musuka hasi

¹⁵ Errusiar literatur kritikaria (1836-1861). Sobietar garaian ongi ikusia eta sakonki ikertua.

		zitzaien: "Lehenagoak bai gizonak haiek!"
5.	В поселке Кунгла мать-героиня родила одиннадцатое чадо.	3. Kungla herrixkan, ama-heroi deitzen duten horietako batek bere hamaikagarren haurtxoa munduratu omen zuen.
6.	Студентка изучает готическую архитектуру. Не расстается с томиком Блока .	4. Tallinnekko arkitektura gotikoa aztertzen dabilen ikasle bat. Bloken liburuxka beti gainean daramana.
7.	-Серж, постарайся!	5. Sergei , saia zaitez!
8.	- [...] Спасибо, говорит, ребята выручили, нашли. Орлы, говорит, передовики, стахановцы...	6. [...] "Eskerrak mutilek salbatu nauten, nire hortzak aurkitu dituzte. Urpekaritzaren arranoak, esaten dik, hauek bai langileriaren abangoardia, Stakhanoven seme jatorrak ¹⁶ ..."
9.	-Можно подумать, один ты-честный. А кто целую повесть написал о БАМЕ ? Кто прославлял чекиста Тимофеева ?	7. Pentsa liteek hi haizela hemen ondradu bakarra. Eta nork idatzi zian Baikala eta Amurraren arteko trenbide-zatiari buruzko ipuin oso bat? Nork egin zian famatu KGBko Timofeiev ?
10.	-Вот и отлично. Договоритесь, чтобы ребенка назвали Лембитом. -Генрих францевич,-взмолился я- кто же назовет своего ребенка Лембитом! Уж очень старомодно. Из фольклора... -Пусть назовут. Какая им разница?! Лембит хорошо , мужественно и символично звучит... В юбилейном номере это будет смотреться. -Вы могли бы назвать своего ребенка- Вовой ? Или Микулой ?	- Ederki, bai horixe. Adostu gurasoekin haurrari Lembit izena jarri diezaioten. - Heinrich Franzevitx –esan nion nik erreguka– baina nork jarriko dio bere haurrari Lembit izena?! Zaharregia da. Folklorekoa... - Jarri diezaiotela. Beraiei zer inporta zaie?! Lembit izenak belarrira ongi ematen du. Itxura ausarta eta sinbolikoa dauka. Urteurrenaren alean ongi geratuko da. 8. - Zuk zure umeari Bova izena jarriko al zenioke? edo Mikula ¹⁷ ?
11.	- "Псковский сувенир". Я раскрыл коробку. В ней лежал анодированный ключ	- <i>Pskoveko oroigarria.</i>

¹⁶ Aleksei Grigorievitx Stakhanov (1906-1977), sobietar meatzaria. Ikatz kopuru errekorra ateratzeagatik, Lan Sozialistaren Heroi izendatu zuten. Harrezkero, langile produktiboaren eredu bihurtu eta haren izena hartu izan zuten lanean emaitza ereduagarriak lortzen zituzten langileek.

¹⁷ Errusiar folkloreko bi pertsonaia ezagun. Antzinako hainbat poema epikotan agertzen dira.

	размером с небольшую балалайку.	Kutxa ireki nuen. Balalaika baten tamainako giltza anodizatu bat zegoen bertan. 1.
12.	Лидочка вышла из кабинета. [...] По образованию Лидочка была врачом-гигиенистом. [...] Агапова достала блокнот и записала на чистой странице-Левин.	Lidotxka bulegotik irten zen. [...] Lidak medikuntza ikasi zuen higienista espezialitatearekin. [...] Agapovak koadernotxoa hartu eta orrialde zuri batean idatzi zuen: Levin. -
13.	-Лидочка, как-слишком печально. Порождает отрицательные эмоции. Ассоциируется с небезызвестным романом . Мы ждем чего-нибудь светлого...	Lidotxka, kantzerraren gaia goibelegia da. Emozio ezkorrak azaleratzen ditu. Denok ezagutzen dugun disidente horren nobelarekin lotzea dakar ¹⁸ . Guk koloretsua izango den zerbait espero dugu...
14.	-Хочешь борща?	Borstx zopa pixka bat nahi duzu?
15.	-Гастролируют столичные творческие коллективы? -Разумеется, вплоть до Магомаева .	- Hiriburuko kolektibo artistikoeak eramaten al dituzte euren ikuskizunak zuen hirira? Noski baietz. Pentsa, Magomaiev bera ere etorri izan da.
16.	<i>Онегина в мешковатых брюках или Собакевича в элегантном фраке...</i>	- <i>Imajina itzazue Pushkinen Onegin zaku formako galtzekin edo Gogolen Sobakievitx zabarra frak dotore batekin...</i>
17.	- [...] Сунулись бы к Айвазовскому , мол, рисуй нам бурлаков за шестерик... Я ведь художник...	- - [...] Horretarako Aivazovskirengana ¹⁹ joan daitezela, esanez, marraziez iezazkiguk ibaietako langileak sei errubloengatik... Ni, ordea, artista bat nauk...
18.	Около уборной (интересно, почему архитектура вокзальных сортиров так напоминает шедевры Растрелли ?) дежурила машина.	- Komunen inguruan (interesgarria litzateke jakitea zergatik duten geltokietako komunek Rastrelliren ²⁰ maisulanen horrenbesteko antza) auto bat zegoen zain.
19.	-Утонул. Выпил коньяк и утонул. Он изучался в Тарту по химии.	- Ito egin zuen. Cognaca edan eta ito egin zuen. Kimika ikasten zebilen Tartun.

¹⁸ Aleksandr Isaievitx Soljenitsin idazle disidentearen "Kantzerdunen pabilioia" liburua esan nahi da. Idazlan honetan bortizki kritikatzeko du sobietar sistema.

¹⁹ Ivan Konstantinovitx Aivazovski (1817-1900), armeniar jatorriko errusiar margolaria. Paisaiak islatzen zituzten margolanengatik ezaguna. Europako arte-akademia askotako kide izendatua eta sari ugari jaso.

²⁰ Francesco Bartolomeo Rastrelli (1700-1771), italiar jatorriko errusiar arkitektoa. Barroko berantiarren ordezkaria. Mosku, Kiev eta San Petersburgoko zenbait eraikin garrantzitsuren egilea.

	<p>-Прости,-говарю. -Я читала много твои статьи. Очень много смешное. И очень часто многоточки... Сплошные многоточки... Я бы хотела работать в Таллинне. Здесь очень маленькая газета...</p>	<p>- Barkatu –esan nuen. - Zure artikuluak asko irakurri <i>naiz</i>. Gauza barregarriak asko. Eta askotan hiru puntu... Hiru puntu alde guztietan... Tallinnen lan egin nahi nuke. Hemengoa oso egunkari txikia da...</p>
20.	<p>-Мишка,-говарю,-у тебя нет ощущения, что все это происходит с другими людьми... Что это не ты... И не я... Что это какой-то идиотский спектакль... А ты просто зритель...</p>	<p>1. Mishka –esan nion– ez daukak hau guztia beste norbaiti gertatzen ari zaionaren irudipena? Ez haizela hi... ez naizela ni... Hau ikuskizun ergelen bat bakarrik dela... Eta hi ikusle bat besterik ez haizela...</p>
21.	<p>Шаблинский работал в газете "Советская Эстония". Гостил в Ленинграде неделю. И теперь возвращался с оказией домой.</p>	<p>2. Shablinskik <i>Sobietar Estonia</i> egunkarian egiten zuen lan. Astebete zeraman Leningraden lagunen batzuen etxean, baina Tallinnera itzultzeko modu bat aurkitu zuen eta bazihoan.</p>
22.	<p>На Вышгороде и в Кадриорге, где меня окружали ручные белки, доверчивые и трогательные.</p>	<p>3. Toompean eta Kadriorgen izan naiz. Eskutik jatera etortzen zaizkizun katagorriak zebiltzan inguruan. Hain ziren fidakor eta hunkigarriak.</p>
23.	<p>Дело в том, что она не имела гражданского статуса. Галина была вдовой знаменитого эстонского революционера, чуть ли не самого Кингисеппа. И ей за это дали что-то вроде пенсии.</p>	<p>4. Kontua da Galinak ez zeukala estatus zibil jakinik. Estoniar iraultzaile ospetsu baten alarguna zen, ia-ia Kingissepp²¹ beraren mailako bat. Eta hori zela eta, pentsio moduko zerbaite eman zioten.</p>
24.	<p>А тут еще начались в Эстонии политические беспорядки. Группа диссидентов обратилась с петицией к Вальдхайму. Потребовали демократизации и самоопределения. Через три дня их меморандум передавало западное радио. Еще через неделю из Москвы последовала директива-усилить</p>	<p>5. Gainera, une hartan bertan, Estonian istilu politikoak hasi ziren. Disidente talde bat Waldheimi²² zuzendu zitzaion eskari batekin; demokratizazioa eta autodeterminazioa aldarrikatzen zituzten. Hiru egun beranduago, jada mendebaldeko irratia euren</p>

²¹ Viktor Kingissepp (1888–1922). Estoniako politikari komunista. 1922an, traizioa leporatuta, exekutatu egin zuten. Beranduago, sobietar Estonian, birgaitua eta laudatua.

²² 1972 eta 1981 artean, Nazio Batuen Erakundeko idazkari nagusia.

	воспитательную работу. Это означало-кого-то разжаловать, выгнать, понизить.	memoranduma zabaltzen ari ziren. Beraz, astebeteren buruan Moskutik agindu bat iritsi zen: heziketa-lanak indartu behar ziren. Honek zera esan nahi zuen: bakarren bat postuz jaitsi, lanetik bota, umiliatu.
25.	Я помахал ему рукой. В ответ Буш поднял кулак-" рот фронт! ". Затем растопырил пальцы-" виктори! ".	6. Eskuaz agur egin nion. Erantzun moduan, Bushek ukabila altxatu eta esan zuen: Rot front! Ondoren, hatzak bananduz: Victory!
26.	Редактор недовольно хмурит брови. Ему неприятно задавать такой ущербный вопрос сотруднику республиканской партийной газеты. У редактора бежевое младенческое лицо, широкая поясница и детская фамилия- Турунок .	7. Erredaktoreak bekainak zimurtu zituen, gustura ez zegoela aditzera emanek. Ezatsegina zitzaion partiduaren errepublika mailako egunkariko langile bati horren galdera lotsagarria egin behar izatea. Erredaktoreak haur aurpegi beix bat zeukan, gerribuelta zabala eta abizena bera ere umearena: Turonok ²³ .
27.	-Тебе нравится чувствовать себя ущербным. Ты любишься своими неудачами, кокетничаешь этим... -Лимон у тебя есть? -Сейчас. Сижу жую лимон.	- Kaltetua sentitzea da zuri gustatzen zaizuna. Gustura egoten zara zeure porrotei begira, haiekin arazerian. - Limoirik ba al daukazu? - Oraintxe ekarriko dizut.
28.	-А ты?-спросил я Быковера . -Надо будет-спую,-ответил Фима	8. Eserita nengoen, limoia zurruputzen. - Eta hik? –galdetu nion Bykoverri . - Abestu behar bada, abestuko diat –erantzun zuen Fimak .
29.	Слово предоставили какому-то ответственному работнику " Ыхту лехт ". Я уловил одну фразу: " Отец и дед его боролись против эстонского самодержавия ". -Это еще что такое?!-поразился Альтмяэ,-В Эстонии не было самодержавия. -Ну, против царизма,-сказал Быковер.	Õhtu leht ²⁴ egunkariko goi-karguren bati eman zioten hitza. Esaldi bat harrapatu nuen: " Bere aita eta aitona estoniar autarkiaren aurka borrokatu ziren ". - Zer duk hori bada?! –esan zuen Altmäek harriturik– Estonian ez duk sekula autarkiarik izan. - Tira, Tsarismoaren aurka –esan zuen Bykoverrek.

²³ Hitz jokoak. Errusieraz “-nok” atzizkiak “kume” adierazten du.

²⁴ (Est.) Arratsaldeko Egunkaria (Estonieraz batera idatzi beharrekoa: *Õhtuleht*).

	<p>-И царизма эстонского не было. Был русский царизм.</p> <p>-Вот еврейского царизма действительно не было,-заметил Фима,-чего нет, того нет.</p>	<p>- Estoniar Tsarismorik ere ez duk izan. Errusiar Tsarismoa bai, hori izan zuan.</p> <p>1. Ziur izan ez dena, Tsarismo judua duk – nabarmendu zuen Fimak– ez dagoen lekutik, ezin atera.</p>
30.	<p>Тарту-городок приветливый, культурный. В толпе мелькали зеленые студенческие фуражки</p>	<p>Tartu hiri adeitsua da, kulturaduna. Unibertsitateko ikasleen txapel berdeak nabarmentzen ziren jendartean.</p>
31.	<p>Продавец заваривал кофе на электроплитке. Его типично эстонский вязаный жилет был украшен металлическими пуговицами.</p>	<p>Dendaria su elektriko batean kafea egiten ari zen. Estonian tipikoak diren puntuz egindako txaleko horietako bat zeraman, metalezko botoiek apaindua.</p>
32.	<p>Театр "Ванемуйне" был построен сравнительно недавно. Мраморные лестницы, просторные холлы, гулкое эхо. Над входом-синий транспарант (в Эстонии любят синие транспаранты): "Слава бывшим узникам фашистских концентрационных лагерей!"</p>	<p>Ez zen denbora asko <i>Vanemuine</i> antzokia eraiki zutela. Marmolezko eskailerak, hall zabalak, oihartzun burrunbatsua. Sarrerako atearen gainean, pankarta urdin bat zegoen (Estonian gogoko dituzte pankarta urdinak). "Agur eta ohore kontzentrazio-eremu faxistetako preso ohiei!"</p>
33.	<p>-Для организации побегов требовались средства. Стали думать, как их раздобыть. И, представьте себе, нашли выход. Я неплохо играл в шахматы. И начальник лагеря был завзятым шахматистом. Решили организовать матч. Назначили приз-восемьдесят марок. Товарищи страстно за меня болели. Я выиграл семь партий из десяти. Начальник лагеря сказал: "Доннер-веттер!"-и расплатился...</p>	<p>Nik xakean nahiko ongi egiten nuen eta eremuko zuzendaria xakezale amorratua zen. Partida bat antolatzea erabaki genuen. Saria ezarri genuen: laurogei marko. Kamaradek sutsuki animatu ninduten, eta hamarretik zazpi partida irabazi nituen. Eremuko zuzendariak "Donner-wetter!" esan eta zorra kitatu zuen...</p>
34.	<p>-Давайте без тостов,-предложил Слапак,-за все хорошее!</p>	<p>-Tira, toparik egin gabe,²⁵– proposatu zuen Slapakek– gauza on guztiengatik!</p>
35.	<p>Кто-то включил радиолу. Прозвучали мощные аккорды:</p>	<p>Norbaitek irratia piztu zuen. Akorde indartsuak entzun ziren: ...<i>Aurrera doa herriaren gerra</i></p>

²⁵ Errusian, tartean hildakoak daudenean, topa egin gabe edan behar da.

	...Идет война народная, Священная война...	Gerra sakratua... ²⁶
36.	Тут я заметил группу пионеров . Они неловко пробирались между столиками. Видно, их задержал ливень. Пионеры несли громадную корзину с цветами.	Orduan, pionero ²⁷ talde bati erreparatu nion. Mahai artean zebiltzan, ezeroso. Bistakoa zen euri zaparradak behartu zituela han geratzera. Haur haiek lorez beteriko saski erraldoi bat zeramaten.
37.	В зале стоял невообразимый шум. кто-то уже вытаскивал из ящичков реквизит. кто-то плясал лезгинку с бутафорским ятаганом в зубах...	Aretoan zarata imajinaezin bat zegoen. Norbait kaxetatik trasteren batzuk ateratzen hasi zen. Beste norbaitek lezginka bat dantzatzen ziharduen, hortzetan gezurrezko jatagan bat zeukalarik...
POLITIKA		
38.	-Вы, конечно, беспартийный ?	- Zu, jakina, ez zara partiduko kide .
39.	Пожелтевшие листья. Десять лет вранья и притворства. И все же какие-то люди стоят за этим, какие-то разговоры, чувства, действительность... Не в самих листах, а там, на горизонте...	Horitutako orrialdeak, gezur eta itxurakeriaz beteriko hamar urte. Baina halere, horren atzean badaude zenbait pertsona, zenbait elkarrizketa, sentimenduak, errealitatea... Ez orrietan beraietan, baizik eta han nonbait, zerumugan...
40.	- И помните: открытый редакционный конкурс-продолжается. Лучшие материалы будут удостоены денежных премий. А победитель отправится в ГДР ... -Добровольно?-спросил я. -То есть? -Меня даже в Болгарию не пустили. Я документы весной подавал. -Пить надо меньше,-сказал Туронок. -Ладно,-говорю,- мне и здесь неплохо... [...] -Вы забыли, что продолжается конкурс. Авторы хороших материалов будут премированы. Лучший из лучших удостоится поездки на Запад, в ГДР .	- Eta gogora ezazu erredakzioko lehiaketa irekiak aurrera jarraitzen duela. Materialik onenek dirutan jasoko dituzte sariak. Eta garailea Alemaniko Errepubliko Demokratikora joango da... - Bere borondatez? -galdetu nuen nik. - Zer esan nahi duzu? - Niri Bulgariara joaten ere ez didate utzi. Udaberrian aurkeztu nituen agiriak. -Gutxiago edatea da zuk egin behar zenukeena -esan zuen Turonokek. Ongi da -esan nuen- hemen ere ez nago hain gaizki... [...] Ahaztu zaizu lehiaketak aurrera jarraitzen duela. Material onenen egileak sarituko dira. Onenetan onenak, mendebalderako bidai a bat

²⁶ Bigarren Mundu Gerrako errusiar abesti famatua, sobietar erregimenarekin oso lotua (Itzultzailearen oharra)

²⁷ SESBko haurren erakunde ofizialeko kideak (Itzultzailearen oharra)

	<p>-Логично. А худший из худших-на Восток? -Что вы этим хотите сказать? -Ничего. Я пошутил. Разве ГДР-это Запад? -А что же это, по-вашему? -Вот Япония-это Запад! -Что?!-испуганно вскричал Туронок. -В идейном смысле,-добавил я.</p>	<p>irabaziko du, Alemaniano Errepubliko Demokratikora. Zentzuzkoa dirudi. Eta txarretan txarrenak, Ekialderakoa? Zer esan nahi duzu horrekin? Ezer ere ez. Txantxetan ari nintzen. Alemaniano Errepubliko Demokratikoa mendebaldea al da? Eta zure ustez zer da, bada? Adibidez Japonia; hori bai dela mendebaldea! Zer? –egin zuen oihu Turonokek, ikaraturik. Ideologiaren ikuspuntutik – gaineratu nuen.</p>
41.	<p>-Вы забыли, что продолжается конкурс. Авторы хороших материалов будут премированы. Лучший из лучших удостоится поездки на Запад, в ГДР. -Логично. А худший из худших-на Восток? -Что вы этим хотите сказать? -Ничего. Я пошутил. Разве ГДР-это Запад? -А что же это, по-вашему? -Вот Япония-это Запад! -Что?!-испуганно вскричал Туронок. -В идейном смысле,-добавил я.</p>	<p>- Ahaztu zaizu lehiaketak aurrera jarraitzen duela. Material onenen egileak sarituko dira. Onenetan onenak, mendebalderako bidaiaria bat irabaziko du, Alemaniano Errepubliko Demokratikora. - Zentzuzkoa dirudi. Eta txarretantxarrenak, Ekialderakoa? - Zer esan nahi duzu horrekin? - Ezer ere ez. Txantxetan ari nintzen. Alemaniano Errepubliko Demokratikoa mendebaldea al da? - Eta zure ustez zer da, bada? - Adibidez Japonia; hori bai dela mendebaldea! - Zer? –egin zuen oihu Turonokek, ikaraturik. - Ideologiaren ikuspuntutik – gaineratu nuen.</p>
42.	<p>-Через неделю-годовщина освобождения Таллинна. Эта дата будет широко отмечаться. На страницах газеты в том числе.</p>	<p>- Astebete barru, Tallinnen askapenaren urteurrena izango da. Data hori luze eta zabal ospatuko da bazter guztietan. Baita gure egunkariko orrialdeetan ere.</p>
43.	<p>-Меркантилизм-одна из ваших неприятных черт,-сказал Туронок. -Долги,-говорю,-алименты... -Пьете много. -И это бывает.</p>	<p>- Merkantilismoa da zure ezaugarri desatseginetako bat –esan zue Turonokek. - Badakizu, zorrak –esan nuen emazteari pasa beharrekoa... - Edan ere gehitxo egiten duzu. - Hori ere gertatu ohi da, bai.</p>
44.	<p>-Ваш сын – деятель эстонского возрождения?</p>	<p>- Zure semea zer da, estoniar berpizkundearen ekintzaileetako bat?</p>

	<p>-Мой сын,-отчеканил Теппе,-фарцовщик и пьяница. И я могу быть за него относительно спокоен, лишь когда его держат в тюрьме...</p>	<p>- Nire semea –esan zuen doktoreak, hitzak azpimarratuz– espekulatzailerik eta mozkorti bat da. Eta, neurri batean behintzat, beragatik lasai egoteko daukadan modu bakarra kartzelan daukatenean da...</p> <p>-</p>
45.	<p>-Слушайте,-говарю,-это любопытно. Вырисовывается интернационализм. Дружба народов... Они зарегистрированы? [...] -Генрих францевич, мне неловко подолгу занимать телефон... Только что родился мальчик. Его отец-дружественный нам эфиоп. -Вы хотите сказать-черный? -Шоколадный. -То есть-негр? -Естественно. -Что же тут естественного? -По-вашему, эфиоп не человек? -Довлатов,-исполненным муки голосом произнес Туронок,-Довлатов, я вас уволью... За попытки дискредитировать все самое лучшее... Оставьте в покое своего засранного эфиопа! Дождитесь нормального-вы слышите меня?-нормального человеческого ребенка!..</p>	<p>- Aizu –esan nuen– kurioa da. Internazionalismoa forma hartzen ari da. Herrien arteko adiskidetasuna... Erroldatuak daude? [...] - Heinrich Franzevitx, ezerosoa zait nirea ez den telefonoa luzaroan erabiltzea. Mutiko bat jaio berri da. Bere aita gure herriaren adiskide etiopiar bat da. - Beltza dela esan nahi duzu? - Txokolate kolorekoa. - Hau da, afrikarra? - Normala den bezala. - Zer dauka horrek normaletik? - Zure iritziz, etiopiarra ez da gizakia? 1. Dovlatov –esan zuen Turonokek sufrimenduz beteriko ahots batez– Dovlatov, kalera bidaliko zaitut... Inon diren gauza on guztiak deskreditatzeko saiakerengatik... Uztazu bakean zure etiopiar alu hori! Itxaron ezazu haur normal bat atera arte. Entzuten didazu? Haur jaioberri normal bat atera arte!</p>
46.	<p>-Поеду я в Швецию или не поеду. Говорят-нет опыта поездок в капстраны. А где взять опыт, если не пускают?.. Ты бывал в капстранах? -Нет. Меня и в соц-то не пустили. Я в Болгарию подавал... -А я даже в Югославии был. Югославия-почти что кап...</p>	<p>- Suediara joango ote naizen ala ez. Herrialde kapitalistetarako bidaietan esperientziarik ez daukadala esaten ditek. Eta nondik hartu behar diat esperientzia joaten uzten ez badidate? Ni egona haiz kap-herrialdeetan? - Ez. Niri soz-herrialdeetara joaten ere ez zidatek uzten. Bulgariarako aurkeztu nizkian paperak... 1. Bada, ni Jugoslavian ere izana nauk. Jugoslavia gutxigatik ez duk kapit...</p>
47.	<p>-Приезжай, ребенка сфотографировать в юбилейный номер. У Штейна сын родился.</p>	<p>- Etor hadi, urteurreneko alerako haur bati argazkia ateratzera. Steinek seme</p>

	<p>Гонорар, между прочим, двойной...</p> <p>-Ты хочешь об этом ребенке писать?</p> <p>-А что?</p> <p>-А то, что Штейн-еврей. А каждого еврея нужно согласовывать. Ты фантастически наивен, Серж.</p>	<p>bat izan dik. Saria, bide batez, bikoitza duk...</p> <p>- Haur horri buruz idatzi nahi al duk?</p> <p>- Zergatik galdetzen duk?</p> <p>- Stein judua delako, horregatik. Eta edozein juduri buruz idazteko adostu beharra zagok. Hire inozokeria ez duk sinestekoa, Sergei.</p> <p>-</p>
48.	<p>-Знаешь, что такое Азалема?-развеселился Кузин.-Самый большой лагерный поселок в Эстонии. ИТК, пересылка, БУР... Ну, давай!</p>	<p>- Ba al dakik Assalemma hori zer den? –esan zuen Kuzinek alai– Estoniako kontzentrazio-eremurik handiena: Lan Behartuen Eremua, trantsituko kartzelak, Ziurtasun Goreneko Barrakoiak... Tira, edan dezagun!</p> <p>1.</p>
49.	<p>Сын-тайнственная личность. Шесть лет уклоняется от воинской повинности. Шесть лет симулирует попеременно-неврозы, язву желудка и хронический артрит.</p>	<p>- Izaera misteriotsuko seme bat zeukaten. Sei urte zeramatzan soldaduskatik ihesik. Sei urte gauza desberdinak simulatzen bata bestearen atzetik; neurosia dela, urdaileko ultzera dela, artritisa kronikoa dela.</p>
50.	<p>- [...] Обязанностей никаких, а прав до черта... Эх, батьки Сталина нет... Порядок был, порядок... Опоздал на минуту-под суд! А сейчас... Разболтался народ, разболтался... Сатирики, понимаешь, кругом... Эх, нету батьки...</p> <p>-Значит, вы одобряете культ личности?-тихо спросила Агапова.</p> <p>-Культ, культ... Культ есть и будет... Личность нужна, понимаете, личность!</p>	<p>- [...] Betebeharririk batere ez, baina eskubideak, berriz, aho bete... Ai, joan zitzaigun Stalin zaharra... Ordena behintzat bazegoen, ordena... Minutu bat berandutzen zinela? Epailearen aurrera! Orain, berriz... Hitzontziak bai ugari, hitzontziak bazter guztietan... Satirikoak besterik ez inguruan, ulertzen didazu? Ai, joan zitzaigun Stalin zaharra...</p> <p>- Beraz, zuk pertsonalitatearen kultuari ongi deritzozu? –galdetu zuen Lidak, ahopean.</p> <p>- Kultua, kultua... Kultua beti dago eta beti egongo da... Pertsonalitate bat da behar duguna, ulertzen didazu, pertsonalitate bat!</p>
51.	<p>-Время было суровое, Лидочка, грозное, суровое время. Семья рушились, вековые устои: рушились...</p> <p>-При чем тут вековые устои?!-неожиданно крикнула Лида.-Я не маленькая. И все знаю. Якира арестовали, и вы подло бросили жену с ребенком. Вы... Вы... Вы-неинтересный человек!</p>	<p>- Garai latzak ziren, Lidotxka; garai trumoiatsuak, latzak. Familiak desagiten ari ziren, mendeetan zehar altxatutako egiturak desagiten...</p> <p>Zer dute ikusteko mendeetako egiturek horrekin?! –garrasi egin zuen Lidak, ustekabean–, ez naiz ume bat. Ezagutzen dut kontu hori guztia. Jakir preso hartu zuten eta zuk lotsagabeki utzi zenituen emaztea eta semea. Zu...</p>

		zu... zu... ez zara pertsona interesgarria!
52.	-Так знайте же, в войну он был палачом. Служил у немцев. Вешал советских патриотов. За что и отсидел двенадцать лет. -О Господи!-сказал я. -Понимаете, что вы наделали?! Прославили изменника Родины! Навсегда скомпрометировали интересную рубрику!	- Tira bada, jakin dezazula: gerra garaian borroa izan zen. Alemaniarrentzat lan egin zuen. Sobietar abertzaleak zintzilikatzen zituen. Hori dela eta, hamabi urte eman zituen kartzelan. - Ene bada! –esan nuen nik. 1. Ulertzen duzu zer egin duzun?! Aberriaren traidore bat laudatu duzu! Egunkariko atal interesgarri bat konpromiso batean jarri duzu betirako!
53.	<i>Коммунисты нашей фермы дружно избрали меня своим членом!</i>	- <i>Gure etxalde kolektiboko komunistek aho batez aukeratu naute euren partiduko kide.</i>
54.	-Приезжай, ребенка сфотографировать в юбилейный номер. У Штейна сын родился. Гонорар, между прочим, двойной... -Ты хочешь об этом ребенке писать? -А что? -А то, что Штейн-еврей. А каждого еврея нужно согласовывать. Ты фантастически наивен, Серж.	- Etor hadi, urteurreneko alerako haur bati argazkia ateratzera. Steinek seme bat izan dik. Saria, bide batez, bikoitza duk... - Haur horri buruz idatzi nahi al duk? - Zergatik galdetzen duk? - Stein judua delako , horregatik. Eta edozein juduri buruz idazteko adostu beharra zagok . Hire inozokeria ez duk sinestekoa, Sergei. -
55.	-Чего тебя в газету потянуло? -А что? - Много врать приходится. -Нет. Я делаю корректуру. Сама еще не пишу. Писала статью, говорят-нехорошо... -О чем? - О сексе. - О чем?! -О сексе. Это важная тема. Надо специальные журналы и книги. Люди все равно делают секс, только много неправильное...	- Zerk eraman zaitu egunkarian lan egitera? - Nola zerk? - Gezur askotxo esan behar da. - Ez. Nik zuzenketak egiten ditut. Nik neuk ez dut oraindik idazten. Artikulu bat idatzi nuen, baina esan zidaten ez zela argitaratzeko modukoa... - Zeri buruz? - Sexuari buruz. - Zeri buruz?! 2. Sexuari buruz. Gai garrantzitsua da hori. Aldizkari eta liburu espezializatuak behar genituzke. Zeren jendeak bestela ere berdin-berdin egingo baitu sexua ; arazoa da gauza asko ez direla behar bezala egiten...

56.	<p>-Переведите,-оттеснил я его,- как Линда добилась таких высоких результатов? Белла перевела. Доярка что-то испуганно прошептала. -Записывайте,-сказала Белла.- Коммунистическая партия и ее ленинский Центральный Комитет... -Все ясно,-говорю,-узнайте, состоит ли она в партии? -Состоит,-ответила Белла. -Давно? -Со вчерашнего дня.</p>	<p>- Galde iezaiozu nolatan lortu dituen Lindak horren emaitza handiak –esan nuen, bultzada batez Jbankov urrunarazten nuen bitartean. Bellak galdera itzuli zuen. Behizainak, izuturik, zerbait xuxurlatu zuen. - Apunta ezazu –esan zuen Bellak–. Partidu komunistak eta bere Komite Zentral leninistak... - Ulertzen dut –esan nuen– galde iezaiozu partiduko kide ote den. - Bada –erantzun zuen Bellak. - Aspalditik? - Atzotik.</p>
57.	<p>-А вы?-Белла повернулась к Жбанкову... -Я тут воевал,-сказал Жбанков,- ну и остался... Короче-оккупант... -Сколько же вам лет? -Не так уж много, сорок пять. Я самый конец войны застал, мальчишкой. Был вестовым у полковника Адера... Ранило меня...</p>	<p>- Eta zu? –Bella Jbankov zegoen aldera jiratu zen. - Nik gerra hemen egin nuen –esan zuen Jbankovek– eta bertan gelditu nintzen... Hitz batean: okupatzailea naiz... - Baina zuk zenbat urte dituzu? 1. Ez hainbeste. Berrogeita bost. Gerraren azkeneko zatia harrapatu nuen, artean haur bat nintzela. Ader koronelaren ordenantza izan nintzen... Zauritu egin ninduten...</p>
58.	<p>Принес ей "Технологию". Книга замечательная. Первую страницу открываешь, написано "Введение". Уже смешно. Один из разделов начинается так: "Любовникам с непомерно большими животами можем рекомендовать позицию-7". Гуманный автор уделит внимание даже таким презренным существам, как любовники с большими животами...</p>	<p>- <i>Teknikak</i> liburua eraman nion. Liburu zoragarria, alajaina. Lehenengo orrialdea irekitzen duzu eta jartzen du: <i>Sarrera</i>. Hori bera barregarria da jada. Kapituluetako bat horrela hasten da: "<i>Neurriz kanpoko sabela duten amoranteei, zazpigarren posizioa gomenda geniezaieke</i>". Hori bai egile gizatiarra. Neurriz kanpoko sabela duten amoranteak bezalako izaki mespretxagarriei tarte bat egitea ere...</p>
59.	<p>Чего он такой мрачный?-спрашиваю. Шаблинский ответил: -Он не мрачный. Он под следствием. Если не ошибаюсь, там фигурирует взятка. -Он что, кому-то взятку дал? -Не идеализируй Гришу. Гриша не давал, а брал. Причем в</p>	<p>- Zer dela eta zagok horren triste? – galdetu nion Shablinskiri. Shablinskik erantzun zidan: - Ez zagok triste. Poliziaren ikerketa batean murgilduta zagok. Oker ez banago, eskupekoren batengatik edo. - Zer, norbaiti eskupeko bat eman al zioan?</p>

	<p>неограниченном количестве. И вот теперь он под следствием. Уже подписку взяли о невыезде.</p> <p>-Как же он выехал?</p> <p>-Откуда?</p> <p>-Из Ленинграда.</p> <p>-Он дал подписку в Таллинне.</p> <p>-Как же он выехал из Таллинна?</p> <p>-Очень просто. Сел в машину и поехал. Грише уже нечего терять. Его скоро арестуют.</p>	<p>- Ez ezak Grisha idealizatu. Grishak ez zian eman, hartu baizik. Gainera, kopuruetan inongo mugarik jarri gabe. Eta horregatik, orain ikerketa bat egiten ari zaizkiok. Bizilekutik inora irtengo ez denaren papera sinatua dik jada.</p> <p>- Eta nola irten duk, bada?</p> <p>- Nondik?</p> <p>- Leningradetik.</p> <p>- Sinadura Tallinnen eman zian.</p> <p>- Eta Tallinnetik nola irten duk, orduan?</p> <p>- Oso erraz. Autoan eseri eta irten. Grishak ez zeukak jada zer galdurik. Laster atxilotuko ditek.</p> <p>-</p>
60.	<p>Иногда десятилетия партийной работы оказываются бессильны. Честь, бывает, полностью утрачена, но обаяние сохранилось. Я даже знавал, представьте себе, обаятельного начальника тюрьмы в Мордовии...</p>	<p>- Batzuetan, partidu komunistan lanean emandako hamarkadak ere ez dira nahikoa izaten. Horrelakoetan, ohorea guztiz galtzen duenik ere bada, baina aldi berean xarma gordez. Behin, pentsa, Mordoviako kartzelako xarmadun zuzendari bat ezagutu nuen...</p>
61.	<p>- Что это за сионистская прокламация? Что это за мифические евреи в тундре? Немедленно уничтожить весь тираж!..</p>	<p>- Zein propaganda sionista klase da hau? Nondik atera dira tundrako judu mitiko horiek? Desegin dezatela berehala tirada guztia!</p>
62.	<p>-Пауль Руди находится в тюрьме. Мы арестовали его как изменника родины. Настоящая его фамилия-Рютти. Он-беглый эстонец. В семидесятом году рванул на байдарке через Швецию. Обосновался в Гамбурге. Женился на Луизе Рейшвиц. Четвертый год плавает на судах западногерманского торгового флота. Наконец совершил первый рейс в Эстонию. Мы его давно поджидали...</p>	<p>- Paul Rudi kartzelan dago. Aberriaren traidore izateagatik atxilotu dugu. Bere benetako abizena Rütти da. Hemendik ihes egindako estoniarra da. Hirurogeita hamargarren urtean egin zuen hanka, Suedian barna, txalupa batean. Hamburgen jarri zen bizi izaten. Luisa Reischwitzekin ezkondata dago. Laugarren urtea zuen hau mendebaldeko Alemaniako merkatal flotako itsasontzietan nabigatzen. Azkenean burutu du Estoniarako bere lehen bidaia. Aspaldian geunden haren zain...</p>
63.	<p>-Есть одна идея. Хотите нам помочь? А мы соответственно будем рекомендовать вас на штатную должность.</p> <p>-В КГБ?-спросил Буш.</p> <p>-Почему в КГБ? В газету "Советская Эстония". Вы же</p>	<p>- Ideia bat daukat. Lagundu nahi diguzu? Eta guk, gure aldetik, trukean, lanpostu egonkor baterako gomendatuko zaitugu.</p> <p>- KGBn? –galdetu zuen Bushek.</p> <p>- Zer dela eta KGBn? <i>Sobietar Estonia</i> egunkarian. Zuk aspaldidanik</p>

	<p>давно мечтаете о штатной работе. В наших силах ускорить это решение. Сроки зависят от вас.</p> <p>Буш насторожился. Полковник Сорокин продолжал:</p> <p>-Вы могли бы дать интересующие нас показания.</p>	<p>amesten baituzu lanpostu egonkor bat izatea. Gure esku dago erabaki hori bizkortzea. Epeak, berriz, zure esku daude.</p> <p>Bushek tentuz jokutzen hasi beharra sumatu zuen. Sorokin koronelak honela jarraitu zuen.</p> <p>- Guri interesatzen zaizkigun adierazpenak egin zenitzake.</p>
64.	<p>Потом Буш встал. Широко улыбаясь, приблизился к Зое Семеновне. Внезапно произвел какое-то стремительное футбольное движение. Затем-могучим ударом лакированного ботинка вышиб поднос из рук ошеломленной женщины.</p> <p>Помещение наполнилось звоном. Ошпаренные сотрудники издавали пронзительные вопли. Люба Торшина, вскрикнув, потеряла сознание...</p> <p>[...]</p> <p>Через три дня Буша обследовала психиатрическая комиссия. Признала его совершенно вменяемым. В результате его судили за хулиганство. Буш получил два года-условно.</p>	<p>Orduan, altxatu eta irribarre zabal bat eginez, Zoia Semionovnarengana hurbildu zen Bush. Bat-batean futbolarien moduko mugimendu azkar bat egin eta lakaturiko botaren kolpe bortitz batez, erretilua zur eta lur geraturiko emakumearen eskuetatik hegaka irtenarazi zuen.</p> <p>Gela burrunba batek bete zuen. Ordurako bero-bero zeuden langileak imintzio beldurgarriak egiten hasi ziren. Linda Torshinak oihu bat egin eta konortea galdu zuen...</p> <p>[...]</p> <p>- Handik hiru egunetara, batzorde psikiatriko batek aztertu zuen Bush. Bere buruaren guztiz jabe zela ondorioztatu zuten eta, ondorioz, bandalismoagatik epaitu. Bi urte bota zizkieten, baldintzapeko askatasunean.</p>
65.	<p>"Дадим суровый отпор врагам мирового империализма!"</p> <p>С этим плакатом Буш шел от Кадриорга до фабрики роялей. И только тут, наконец, милиционеры спохватились. Кто это-"враги мирового империализма"? кому это-"суровый отпор"?..</p>	<p><i>"INPERIALISMO MUNDIALAREN ETSAIEN AURKA, ERRESISTENTZIA!"</i></p> <p>Pankarta horrekin Kadriorgetik piano-fabrikarainoko bidea egin zuen Bushek. Orduan, halako batean, poliziek zerbait arraroa sumatu zuten: Nola "inperialismo mundialaren etsaiak"? Noren aurka "erresistentzia"?</p>
66.	<p>Минуту Буш глядел в окно. Потом улыбнулся и красивым, стелющимся почерком вывел: "Заявление". И дальше:</p> <p>"1. Выражаю чувство глубокой озабоченности судьбами христиан-баптистов Прибалтики и Закавказья!</p> <p>2. Призываю американскую интеллигенцию чутко реагировать на злоупотребления</p>	<p>Bush leihora begira egon zen minutu batez. Ondoren, irribarre bat egin eta hizki eder eta handiz idatzi zuen:</p> <p>"Ondorengo adierazi nahi nuke:"</p> <p>Eta gero:</p> <p>"1. Baltikoko errepubliketako eta Transkaukasiako kristau baptisten etorkizunaren inguruko nire kezkarik sakonena adierazi nahi dut!</p> <p>2. Estatu Batuetako intelektualei dei egiten diet, Kremlinak eskubide zibilen</p>

	<p>Кремля в области гражданских свобод!</p> <p>3. Требую права беспрепятственной эмиграции на мою историческую родину-в федеративную Республику Германии!</p> <p>Подпись-Эрнст Буш, узник совести".</p>	<p>alorrean burutzen dituen gehiegikerien aurrean irmoki erantzun dezaten!</p> <p>3. Nire aberri historikora inongo oztoporik gabe emigratzeko eskubidea aldarrikatzen dut: Alemaniako Errepublika Federalera!</p> <p>Sinatzen du: Ernst Bush, kontzientzia-presoa"</p>
67.	<p>Я был подходящим человеком для репрессий. И меня уволили. Одновременно в типографии был уничтожен почти готовый сборник моих рассказов. И все это для того, чтобы рапортовать кремлевским боссам-меры приняты!</p> <p>Конечно, я был не единственной жертвой. В эти же дни закрыли ипподром-рассадник буржуазных настроений. В буфете Союза журналистов прекратили торговлю спиртными напитками. Пропала ветчина из магазинов. Хотя это уже другая тема...</p>	<p>Ni errepresiorako pertsona aproposa nintzen eta, ondorioz, lanetik bidali ninduten. Aldi berean, tipografian ia-ia ateratzeaz zen nire ipuinen bilduma deuseztatu zuten. Eta hori dena Kremlinoko handi-mandiei zera jakinarazi ahal izateko soilik: Neurriak hartu ditugu!</p> <p>Noski, ez nintzen ni izan biktima bakarra. Egun haietantxe itxi zuten hipodromoa ere, ideia burgesen zabaltzaile zelakoan. Kazetarien Batasuneko tabernan alkoholdun edariak saltzeari utzi zioten. Urdaiazpikoa dendetatik desagertu zen. Baina tira, hori jada beste gai bat da...</p>
68.	<p>В общем, с эстонским либерализмом было покончено. Лучшая часть народа-двое молодых ученых-скрылись в подполье...</p>	<p>Laburbilduz, Estoniako liberalismoa amaitua zen. Herriaren zatirik onena, bi zientzialari gazte, klandestinitatera igaro ziren...</p>
69.	<p>-Да какие они немцы?! Это третье поколение колонистов. Они давно в эстонцев превратились. Язык, культура, образ мыслей... Типичные эстонцы. Отцы и деды в Эстонии жили...</p> <p>-Дед Бори Ройблата тоже жил в Эстонии. И отец жил в Эстонии. Но Боря так и остался евреем. И ходит без работы...</p>	<p>- Baina zer alemaniar klase dira horiek?! Kolonizatzaileen hirugarren belaunaldia da hori. Aspaldidanik estoniartuta daude. Hizkuntza, kultura, pentsamoldea... Estoniar tipikoak dira. Euren gurasoak eta aitona-amonak ere Estonian bizi izan ziren...</p> <p>Boris Reublaten aitona ere Estonian bizi izan zen. Eta aita ere Estonian bizi izan zen. Eta, hala ere, Borisek judua izaten jarraitzen du. Eta horregatik dabil lanik gabe...</p>
70.	<p>-Мне бы хотелось внести что-то свое... Чутьочку изменить... Я не столь эмоционален...</p> <p>-Придется сохранить основу. Есть виза...</p>	<p>- Neurea izango den zerbait sartu nahi nuke... Pixka bat aldatu...Ni, izatez, ez bainaiz hain emozionala...</p> <p>- Oinarria mantendu beharko duzu. Filtroa pasatu du jada...</p>

71.	Затем буржуазная Эстония пала. Как прогрессивно мыслящий еврей, Фима был за революцию.	1. Garai hartan, Estonia burgesa erori zen eta, pentsamolde progresistadun judua izanik, iraultzaren alde agertu zen.
72.	<p><i>В городе Тарту открылся III республиканский слет бывших узников фашистских концентрационных лагерей.</i></p> <p><i>Их лица одновременно праздничны и суровы. На груди у каждого скромный маленький значок-красный треугольник и силуэт голубки, нерасторжимые эмблемы пролитой крови и мира.</i></p> <p>[...]</p> <p><i>Рассказывает Лазарь Борисович Слапак, инженер-конструктор:</i></p> <p><i>-Сначала я находился в лагере для военнопленных. За антифашистскую пропаганду и организацию побегов был переведен в Штутгоф...</i></p> <p><i>[...]как предостережение, клятву и заповедь мира: "Никто не забыт и ничто не забыто!"</i></p>	<p><i>Tartu hirian, kontzentrazio-eremu faxistetan preso egondakoen Estoniako Errepublika mailako III Bilkurari hasiera eman zaio.</i></p> <p><i>Euren aurpegiak, jai-girokoak eta, aldi berean, zorrotzak dira. Haietako bakoitzak intsignia txiki apal bat darama bularrean: hiruki gorri bat, uso txiki baten siluetarekin, isuritako odolaren eta bakearen ikur suntsiezinak.</i></p> <p>[...]</p> <p><i>Hona hemen eraikuntzako ingeniari den Lazar Borisovitz Slapakek dioena:</i></p> <p><i>-Hasieran gerrako presoentzako eremuan egon nintzen, baina faxismoaren aurkako propaganda eta ihesaldien antolaketa zirela medio, Stuthofera aldatu ninduten...</i></p> <p>2. [...]<i>etorkizunerako ohartarazpen moduan, bakearen juramentu eta manamendu moduan, zera adierazi nahi dugu: "Inor ere ez dago ahaztua. Ezer ere ez dago ahaztua!"</i></p>
73.	В холлах бродили люди с орденами и медалями.	Halletan kondekorazio eta dominadun jendea zebilen noraezean.
74.	-Знакомьтесь. Лазарь Борисович Слапак, инженер-конструктор, бывший узник Штутгофа.	Lazar Borisovitz Slapak aurkezten dizuet, eraikuntzako ingeniaria, Stuthof eremuko preso ohia.
75.	Ипподром-единственное место, где торгуют в розлив дешевым портвейном.	Hipodromoa da Portoko ardo merkea ontziratu gabe erosteko dagoen toki bakarra.
76.	С чудовищными усилиями, ценою всяких жертв обзаводятся, например, девушки импортными сапогами. Трудно представить, как много времени и сил это отнимает. А потом-демонстрация импортных сапог. Бесчисленные компании, танцы или просто-от универмага до ратуши, мимо сияющих витрин.	Ahalegin ikaragarrien bitartez, ordainetan era guztietako sakrifizioak eginez eskuratzen dituzte, adibidez, inportazioko bota altuak. Zaila da imajinatzen horrek zenbat denbora eta indar kentzen dien. Eta gero, berriz, oinetako horien erakustaldia. Lagunarte kontagaitzak, dantzaldiak edo besterik gabe, supermerkatutik udaletxerako bidea, erakustokietako beira distiratsuen aldamenetik igaroz.

77.	-Нет, вы только послушайте! Он же темный, как Армстронг!	Ez da posible, entzun iezaiozue! Armstrongek ilargian zeukana baino argi gutxiago dauka honek buruan!
78.	<p>ЭСТОНСКИЙ БУКВАРЬ" <i>У опушки в день ненастный</i> <i>Повстречали зверя.</i> <i>Мы ему сказали: "Здравствуй!"</i> Зверь ответил: "Тере" <i>И сейчас же ясный луч</i> <i>Появился из-за туч...</i> [...] -Там фигурирует зверь. -Ну.</p> <p>-Это что же получается? Выходит, эстонец-зверь? Я-зверь? Я, инструктор Центрального Комитета партии,-зверь?!</p> <p>-Это же сказка, условность. Там есть иллюстрация, Ребятишки повстречали медведя. У медведя доброе, симпатичное лицо. Он положительный...</p> <p>-Зачем он говорит по-эстонски? Пусть говорит на языке одной из капиталистических стран...</p> <p>-Не понял. -Да что тебе объяснять! Не созрел ты для партийной газеты, не созрел.</p>	<p><i>"ESTONIERAZKO ALFABETOA</i> <i>Basoko bidezidorrean, egun euritsua zenean oso,</i> <i>Pizti bat topatu genuen.</i> <i>Guk esan genion: Kaixo!</i> Piztiak erantzun zigun: Tere²⁸! <i>Eta argi-izpi bat kolpera</i> <i>Jausi zen hodeien aurrera"</i> [...] - Hor animalia bat agertzen da. - Eta? - Zer esan nahi duk horrekin? Estoniarra animalia bat dela? Ni animalia bat nauk? Ni, partiduaren Komite Zentraleko ikuskatzailea, animalia bat nauk? - Baina hori ipuin bat da, fikzioa. Hor dagoena ilustrazio bat besterik ez da. Umetxoek hartz batekin egiten dute topo. Hartzak aurpegi zintzoa, atsegina dauka. Pertsonaia positiboa da... - Zergatik hitz egiten dik estonieraz? Hitz egin dezala herrialde kapitalistaren bateko hizkuntzan... - Ez dut ulertzen. -Zera ulertuko duk hik! Ez daukak partiduaren egunkari batean lan egiteko behar den heldutasun politikorik, ez daukak...</p>
79.	<p>-Зачем он говорит по-эстонски? Пусть говорит на языке одной из капиталистических стран...</p> <p>-Не понял. -Да что тебе объяснять! Не созрел ты для партийной газеты, не созрел.</p>	<p>- Zergatik hitz egiten dik estonieraz? Hitz egin dezala herrialde kapitalistaren bateko hizkuntzan... - Ez dut ulertzen. Zera ulertuko duk hik! Ez daukak partiduaren egunkari batean lan egiteko behar den heldutasun politikorik, ez daukak...</p>
80.	Таллинн-город маленький, интимный. Встречаешь на улице знакомого и слышишь: "Привет, а я тебя ишу..." Как будто дело происходит в учрежденческой столовой...	1. Tallinn hiri txikia da, lagunartekoa. Klean ezagunen bat topatu eta entzuten duzu: "Kaixo, hain justu zure bila nenbilen...". Lantokiko jangelan gertatuko balitz bezalaxe...

²⁸ "Kaixo" estonieraz (Itz.)

81.	<p>Эстонцев я отличаю сразу же и безошибочно. Ничего крикливого, размашистого в облике. Неизменный галстук и складка на брюках. Бедноватая линия подбородка и спокойное выражение глаз. Да и какой русский будет тебе делать гимнастику в одиночестве...</p>	<p>2. Estoniarrak berehala eta akatsik gabe bereizi ohi ditunik. Fisonomian ez zaie ezer zalapartatsurik edo neurrigabekorik nabari. Gorbata beti gainean eta galtzetako tolesdura, berriz, zuzen. Kokotsaren arrastoa ez oso markatua eta begietan baretasuna. Gainera, gimnasia-ariketak bakarka egingo dituen errusiarrik ez da munduan...</p>
82.	<p>-Мобиле кооперато. Подвижный дом. Жилище будущего... -Это вагон,-прервет ее Чубаров,-обыкновенный вагон. А вашего Ле Корбюзье нужно срочно госпитализировать...</p>	<p>- <i>Mobile cooperato</i>. Etxe mugikorra. Etorkizuneko etxebizitza... - Hau bagoi bat da –etengo dio Txubarovek– bagoi arrunt bat besterik ez. Eta zure Le Corbusier hori erietxera eraman behar da lehenbailehen... 3.</p>
83.	<p>Попробую ее изобразить. Хотя внешность Агаповой существенного значения не имеет. Резиновые импортные боты. Тяжелая коричневая юбка не подчеркивает шага. Синтетическая курточка на молнии-шуршит. Кепка с голубым верхом-форменная-таллиннского политехника. [...] Так и у меня, казалось бы, все импортное, народной демократии. А вида нету... И где они берут? С иностранцами гуляют? Позор!.. А смотрится..."</p>	<p>Agapova irudikatzen saiatuko naiz, emakume honen kanpoko itxura funtsezkoegia ez bada ere. Inportazioko gomazko botak. Gona marroi astun batek ez dio ibilera azpimarratzen. Kremaileradun berokitxo sintetikoa xuxurlaka darabil. Gainalde urdindun txapela, markakoa, Tallinnekoko politeknikoan egina. [...] Nire jantziengatik ere esan daiteke inportaziokoak direla, demokrazia sozialistetatik ekarritakoak izan arren. Eta hala ere, ez daukate ganorazko itxurarik. Hauek non lortzen ote dituzte? Ez dira bada atzerritarrekin tratutan arituko? Lotsagarria! Baina hori bai, ez daukate itxura txarrik..." -</p>
84.	<p>Какая-то у него судьба загадочная. То ли был репрессирован, то ли наоборот... Начальник из провинции-это любопытно. Это можно как-нибудь оригинально повернуть. "Нет географической провинции, есть провинция духовная..."</p>	<p>Iragan misteriotsuren bat zeukala edo. Errepresioa pairatutakoa edo alderantziz... Probintziaren batean goikargua. Hori kurioso izan liteke. Nolabait originaltasunez moldatzeko modukoa da. "Ez dago probintzianotasun geografikorik, espirituala soilik..."</p>
85.	<p>-Лида!-дико крикнул Алиханов.-Я больше не могу! Я не гожусь для радиопередачи! Я</p>	<p>Lida! –egin zuen oihu Alikhanovek, modu basati batean–, ezin dut gehiago! Ez naiz egokia irratsaio baterako! Atzo</p>

	<p>вчера напился! У меня долги и алименты! Меня упоминала "Немецкая волна"! Я некоторым образом-диссидент! Вас уволят... Отпустите меня...</p>	<p>mozkorra harrapatu nuen! Zorrak dauzkat eta emazteari dirua pasatu behar diot! Herrialde kapitalistetako irrati batek, <i>Deutsche wellek</i>, ere aipatu izan nau! Neurri batean, esan daiteke disidentea naizela! Lanetik botako zaituzte... Utz nazazu bakean...</p>
86.	<p>-Трудолюбивый народ, буржуазия, экономический кризис, обнищание масс... -Ты по-человечески расскажи. Хорошо французы к нам относятся? -А черт их знает. Настроение у всех хорошее.</p>	<p>- Herri langilea, burgesia erreazionarioa, krisi ekonomikoa, masen txirotzea... - Hitz egidazu pertsonak bezala. Iritzi ona al dute frantsesek guri buruz? Deabruak daki zer nolako iritzia duten horiek. Hori bai, denak beti umore onez.</p>
87.	<p>-Значит, Франции практически не видел? -Почему? У нас был цветной телевизор.</p>	<p>- Orduan, Frantzia praktikoki ez zenuen ikusi ere egin? 1. Zer dela eta? Koloretako telebista geneukan.</p>
88.	<p>-Лидка, я член привез. Каучуковый член филигранной работы. Ей-богу. Куда же он девался? Видно, Галка перепрятала... -Зачем это тебе? -Как зачем? Это произведение искусства. Клянусь. И Галке нравится. -Как таможенники не отобрали? -Я же не в руках его тащил, я спрятал. -Куда? Ведь не иголка... -Я одну даму попросил из нашей лаборатории. Женщин менее тщательно обыскивают.</p>	<p>- Lidka, zakil bat ekarri dut. Kautxuzko zakila, filigrana bat. Ene! Non sartu da? Galkak beste nonbait ezkutatuko zuen. - Zertarako behar duzu zuk hori? - Nola zertarako? Hori artelan bat da. Zin dagit. Galkari ere gustatzen zaio. - Aduanan nolatan ez zizuten kendu? - Ez nuelako eskuetan ekarri. Ezkutatu egin nuen. - Non bada? Ez baita jostorratz bat... - Gure laborategiko dama bati eskatu nion ezkutatzeko. Emakumeak zuhurtzia gutxiagoz arakatzen dituzte.</p>
89.	<p>Таково негативное свойство импортной мягкой фланели.</p>	<p>- Ezaugarri ezkor hori izan ohi du inportazioko flanela bigunak.</p>
90.	<p>- [...] культурный уровень русских журналистов в Эстонии, что называется, оставляет желать лучшего.</p>	<p>- [...] Estonian dauden errusiar kazetarien kultura mailak, esan ohi den bezala, badauka zer hobetu.</p>
91.	<p>До этого был подобен советскому рублю. Все его любят, и падать некуда. У доллара все иначе. Забрался на такую высоту и падает, падает...</p>	<p>- Ordura arte, sobietar errubloa bezalako nintzen. Denek maite dute, baina ez dauka nondik erori. Dolarrarekin dena alderantziz gertatzen da: horrenbesteko garaiera lortu duenez, erori eta erori ari da etengabe...</p>

92.	Тот, что нас встретил, оказался шофером. Оба говорили почти без акцента. Наверное, происходили из волосовских эстонцев...	- Trenbidera bila etorri zitzaiguna gidaria zela jakin genuen orduan. Biek ere ia azenturik gabe hitz egiten zuten errusieraz. Ziurrenik, Volosovotik etorritako estoniarren ondorengoak izango ziren...
93.	Он вдруг стал на четвереньки и заглянул под кровать. Затем долго и недоверчиво разглядывал штепсельную розетку. -Ты чего?-спрашиваю. -Микрофон ищу. Тут, натурально, должен быть микрофон. Подслушивающее устройство. Мне знакомый алкаш рассказывал...	Orduan, lau hankan jarri eta ohe azpian begiratu zuen. Ondoren, denbora luzez eta mesfidantzaz aztertu zuen entxufearen hartunea. - Zer ari haiz, motel? –galdetu nion. - Mikrofonoren baten bila ari nauk. Hemen, noski, mikrofonoren bat egon behar dik. Entzuketak egiteko tresnaren bat. Ezagutzen dudan mozkorti batek kontatu zidaan...
94.	-А корова?-удивилась Белла. -Что-корова? -По-моему, их нужно сфотографировать рядом. -Корова здесь не поместится,- разъярил Жбанков,-а там освещение хреновое. -Как же быть? Жбанков засунул аппарат в карман. -Коров в редакции навалом,- сказал он. -То есть?-удивилась Белла. -Я говорю, в архиве коров сколько угодно. Вырежу твою Линду и подклею.	- Eta behia? –esan zuen Bellak harriturik. - Behia zer? - Nire ustez biei atera beharko litzaieke argazkia, elkarren alboan. - Behia ez da gela honetan kabituko – azaldu zion Jbankovek– eta han, berriz, argia nazkagarria da. - Zer egin dezakegu? Jbankovek argazki-kamera poltsikoan gorde zuen. - Erredakzioan soberan dauzkagu behiak –esan zuen Jbankovek. - Nola? –esan zuen Bellak harriturik. Esan nahi dut, artxihoan nahi adina behi daukagula. Zure Linda hau moztu eta itsatsi egingo dut.
95.	У него было смуглое мужественное лицо американского киногероя. Лацкан добротного заграничного пиджака был украшен гвоздикой. Полуботинки сверкали.	- Amerikar filmetako aktore baten antza ematen zion aurpegi beltzaran bat zeukan. Atzeritik ekarritako kalitate oneko jakaren papar-hegala krabelin batek apaintzen zion, eta zapatak distiratsu zeuzkan.
96.	-Решено, Эрнст Леопольдович, поручить вам ответственное задание. Берете в секретариате пропуск. Едете в морской торговый порт. Беседуете с несколькими западными капитанами. Выбираете одного, наиболее лояльного к идеям социализма. Задаете ему какие-то вопросы. Добиваетесь более или	- Ernst Leopoldovitx, zuri erantzukizun handiko eginkizun bat ematea erabaki dugu. Har ezazu pase bat idazkaritzan. Joan zaitez merkataluntzien portura. Hitz egin ezazu mendebaldeko herrialdeetako kapitain batzuekin. Aukeratu bat, sozialismoaren ideiekin leialena. Egizkiozu galdera batzuk. Atera iezazkiozu, ahal den neurrian, egokiak

	<p>менее подходящих ответов. Короче, берете у него интервью. Желательно, чтобы моряк поздравил нас с шестьдесят третьей годовщиной Октябрьской революции. Это не значит, что он должен выкрикивать политические лозунги. Вовсе нет. Достаточно сдержанного уважительного поздравления. Это все, что нам требуется. Ясно?</p> <p>[...]</p> <p>-Причем нужен именно западный моряк. Швед, англичанин, норвежец, типичный представитель капиталистической системы. И тем не менее лояльный к советской власти.</p>	<p>izango diren erantzunak. Hitz batean, har iezaiozu elkarrizketa bat. Ongi legoke marinela horrek, Urriko Iraultzaren hirurogeita hirugarren urteurrenagatik zorionduko bagintu. Horrek ez du esan nahi gure lelo politikoak oihuka aldarrikatu behar dituenik, ezta gutxiago ere. Nahikoa izango da hitz gutxiko errespetuzko zoriontze bat. Hori da behar dugun guztia. Ulertu duzu?</p> <p>[...]</p> <p>- Izan ezazu gogoan, hain zuzen, mendebaldeko herrialde bateko marinela izan behar duela: suediarra, ingelesa, norvegiarra; sistema kapitalistaren ordezkari tipiko bat. Eta hala ere, sobietar sistemari leiala izango zaiona.</p>
97.	<p>-Если бы ты знал,-говорил журналист,-как мне все опротивело! Надо бежать из этой проклятой страны!</p> <p>- Я понимаю,-соглашался капитан.</p> <p>-Ты не можешь этого понять! Для тебя, Пауль, свобода-как воздух! Ты его не замечаешь. Ты им просто дышишь. Понять меня способна только рыба, выброшенная на берег.</p> <p>-Я понимаю,-говорил капитан,- есть выход. Ты же немец. Ты можешь эмигрировать в свободную Германию.</p> <p>-Теоретически это возможно. Практически-исключено. Да, мой папаша-обрусевший курляндский немец. Мать-из Польши. Оба в партии с тридцать шестого года. Оба-выдвиженцы, слуги режима. Они не подпишут соответствующих бумаг.</p> <p>[...]</p> <p>-Свободен не тот, кто борется против режима. И не тот, кто побеждает страх. А тот, кто его не ведает. Свобода, Пауль,-функция организма! Тебе этого не понять!</p>	<p>- Jakingo bazenu –zioen kazetariak– nola naukan nazkaturik hemengo guzti honek! Herrialde madarikatu honetatik alde egin beharra zagok!</p> <p>- Ulertzen diat –onartu zuen kapitainak, ados zegoela aditzera emanaz.</p> <p>- Hik ezin duk hori ulertu! Hirezat, Paul, askatasuna airea bezalakoa duk! Ez duk nabaritu ere egiten. Hik arnastu egiten duk, besterik gabe. Urertzera botatako arraina duk ni ulertzeko gai den bakarra.</p> <p>- Ulertzen diat –esan zuen kapitainak– bazagok irtenbide bat, zeren hi naziotasunez alemaniarra baihaiz. Alemania librera emigra dezakek.</p> <p>- Teorian posible duk hori. Praktikan ez zagok zereginik. Bai, nire aita errusiartutako Kurlandeko alemaniarra duk. Ama poloniarra. Biak hogeita hamaseigarren urtetik zeudek partiduan. Biak ere goranahi batzuk dituk, erregimenaren morroiak. Horretarako behar diren paperak ez ditiztek sinatuko.</p> <p>[...]</p> <p>1. Ez duk aske erregimenaren aurka</p>

	<p>Ведь ты родился свободным, как птица!</p>	<p>borrokatzen dena edo izua menpean hartzen duena, baizik eta izu hori ezagutzen ez duena. Askatasuna, Paul, organismoaren funtzio bat duk! Hik ezin duk hori ulertu! Hi aske jaio hintzelako, txori bat bezala!</p>
<p>98.</p>	<p>Капитана Пауля Руди я застал в машинном отделении. Торговое судно "Эдельвейс" готовится к отплытию. Изношенные механизмы требуют дополнительной проверки.</p> <p>-Босса интересует только прибыль,--жалуется капитан.- Двадцать раз я советовал ему заменить цилиндры. Того и гляди лопнут прямо в открытом море. Сам-то босс путешествует на яхте. А мы тут загораем, как черти в преисподней..." Конец был такой:</p> <p>"Капитан вытер мозолистые руки паклей. Борода его лоснилась от мазута. Глиняная трубка оттягивала квадратную челюсть. Он подмигнул мне и сказал:</p> <p>-Запомни, парень! Свобода-как воздух. Ты дышишь свободой и не замечаешь ее... Советским людям этого не понять. Ведь они родились свободными, как птицы. А меня поймет только рыба, выброшенная на берег... И потому-я вернусь! Я вернусь, чтобы снова отведать ржаного хлеба! Душистого хлеба свободы, равенства и братства!.."</p>	<p><i>"Paul Rudi kapitaina makina-gelantopatu dut. Edelweiss merkataluntzia irteteko prestatzen ari da. Hondaturiko makinek azterketa gehigarri bat behar dute.</i></p> <p><i>- Nagusiari etekina besterik ez zaio interesatzen –dio kapitainak kexuka–. Hogei bat aldiz gomendatu diot zilindroak ordezkatzeko, kontuz ibili ezean, itsaso barrenean gaudenean lehertuko direlako. Nagusiak berak, noski, yatean bidaiatzen du. Eta gu hemen, erre beharrean, deabrua infernua bezalaxe..."</i></p> <p><i>Amaierak honela zioen:</i></p> <p><i>"Kapitainak iztupaz igurtzi ditu babaz beteriko eskuak. Koipeak distira bat ematen dio bere bizarrari. Buztinezko pipatik erretzean, bere matrailezur karratuari tira egiten dio. Begiaz kinada bat egin eta esan dit:</i></p> <p><i>- Har ezak hau gogoan, gazte! Askatasuna airea bezalakoa duk. Hik askatasuna arnastu egiten duk, nabaritu ere egin gabe... Sobietar jendeak hori ezin dik ulertu. Beraiek aske jaio direlako, txoriak bezala. Urertzera botatako arraina bakarrik duk ni ulertzeko gai... Horregatik, itzuliko nauk! Itzuliko nauk berriro ogi beltza dastatzera. Askatasunaren, berdintasunaren eta anaitasunaren usain gozodun ogia dastatzera!"</i></p>
<p>99.</p>	<p>У берега плавают черные лебеди. Как они сюда попали-неизвестно. Зато всем известно, что эстонцы любят животных. кто-то построил для лебедей маленькую фанерную будку. Посетители Кадриорга бросают им хлеб...</p>	<p>Urertzean zisne beltz batzuk ibiltzen dira igerian. Hara nola iritsi diren inork ez daki. Baina denek dakite, bestalde, estoniarrek animaliak maite dituztela. Norbaitek, egurrezko txapez, zisneentzako etxola txiki bat eraiki zuen. Kadriorgeko bisitariak ogia botatzen diete...</p>

100	<p>Более того, я даже преуспел. Если в Ленинграде меня считали рядовым журналистом, то здесь я был почти корифеем. Мне поручали все более ответственные задания. Я писал о книжных и театральных новинках, вел еженедельную рубрику "Другое мнение", сочинял фельетоны. А фельетоны, как известно, самый дефицитный жанр в газете. Короче, я довольно быстро пошел в гору.</p>	<p>Are gehiago, gauzak ongi joan zitzaizkidan. Leningraden kazetari arruntzat baninduten, hemen ia-ia korifeo bat nintzen. Gero eta erantzukizun handiagoko lanak ematen zizkidaten. Liburu eta antzezlan berriei buruz idazten nuen, <i>Beste iritzi bat</i> izeneko asteroko atal bat egiten nuen, satirak idazten nituen. Eta satirena, jakina denez, egunkari batean dagoen generorik defizitarioena da. Laburtuz, nahiko azkar egin nuen gorantz.</p>
101	<p>Редактор не обижался. Он был либерально мыслящим интеллигентом. Вообще обстановка была тогда сравнительно либеральной. В Прибалтике-особенно.</p>	<p>Erredaktorea ez zen horrelakoetan iraindua sentitzen. Mentalitate liberaleko intelektuala zen. Orokorrean, orduko giroa erlatiboki liberala zen. Bereziki, Baltikoko errepubliketan.</p>
102	<p>-Ильвес был директором телестудии. Похороны его-серьезное мероприятие. Надеюсь, это ясно?</p>	<p>Ilves telebista estudioetako zuzendaria zen. Bere hileta ospakizunak gauza serioa dira. Garbi geratu al da?</p>
103	<p>Сам я был в галстукe. Мне его уступил год назад фарцовщик Акула. Он же и завязал его каким-то необыкновенным способом. "А ля" френк Синатра.</p>	<p>Nik neuk gorbata bat neraman. Urtebete lehenago Marrazo espekulatzaileak emana. Marrazok berak lotu zidan, nik ulertzen ez nuen moduren batean. <i>A là Frank Sinatra.</i></p>
104	<p>-Чухонцы все такие,-сказал Жбанков,--Адолф-их лучший Друг. А русских они презирают. -А за что им нас любить?-вмешался Гурченко.-За тот бардак, что мы им в Эстонии развели?! -Бардак-это еще ничего,-сказал Жбанков,-плохо, что водка дорожает...</p>	<p>- Baltikoko errepubliketako hauek denak horrelakoak dira –esan zuen Jbankovek–, Adolf da euren lagunik onena. Eta errusiarrok mespretxatu egiten gaituzte. - Eta zer dela eta maitatu behar gaituzte, bada? –sartu zen Gurtxenکو elkarrizketan– Estonian antolatu diegun nahaspilarengatik? Nahaspilarena ez da okerrena –esan zuen Jbankovek–, okerrena da vodka bera ere garestitzen ari dela...</p>
105	<p>-Не расстраивайся, парень,-сказал он.-Еврей так еврей, ничего страшного. Я четыре года жил в Казахстане. Казахи еще в сто раз хуже...</p>	<p>- Ez hadi haserretu, motel –esan zuen– judua haizela, eta zer? Horrek ez dik ezer txarrik. Ni lau urte bizi izan ninduan Kazakhstanen. Kazakhstandarrak mila aldiz okerragoak dituk...</p>

106	За информацию мне уплатили два рубля. Я думал-три заплатят...	- Bi errublo ordaindu zizkidaten artikulu honengatik. Hiru emango zizkidatela uste nuen...
107	Ипподром-единственное место, где торгуют в розлив дешевым портвейном.	- Hipodromoa da Portoko ardo merkea ontziratu gabe erosteko dagoen toki bakarra.
108	С чудовищными усилиями, ценою всяких жертв обзаводятся, например, девушки импортными сапогами. Трудно представить, как много времени и сил это отнимает. А потом-демонстрация импортных сапог. Бесчисленные компании, танцы или просто-от универмага до ратуши, мимо сияющих витрин.	- Ahalegin ikaragarrien bitartez, ordainetan era guztietako sakrifizioak eginez eskuratzen dituzte, adibidez, inportazioko bota altuak. Zaila da imajinatzen horrek zenbat denbora eta indar kentzen dien. Eta gero, berriz, oinetako horien erakustaldia. Lagunarte kontagaitzak, dantzaldiak edo besterik gabe, supermerkatutik udaletxerako bidea, erakustokietako beira distiratsuen aldamenetik igaroz.
109	Чмутов получает свои одиннадцать рублей.	- Txmutovek bere hamaika errubloak jasoko zituen eta kito.
110	Калинин, например, утверждает, что безработица-стимул прогресса. А то все знают, что их не уволят. А если и уволят, то не беда. Перейдет через дорогу и устроится на соседний завод. То есть можно прогуливать, злоупотреблять...	- Kalininek, adibidez, langabezia aurrerapenaren pizgarri dela ziurtatzen du. Gainerakoan, hemen denek badakitelako ez direla lanik gabe geratuko. Eta gertatuz gero ere ez dela hainbesterako. Errepidea igaro eta alboko lantegian hartuko dutelako. Hau da, noizbait lanera joan gabe edota lanean iruzurren bat eginda ere ez dela ezer gertatzen...
111	-Лидка, я член привез. Каучуковый член филигранной работы. Ей-богу. Куда же он девался? Видно, Галка перепрятала... -Зачем это тебе? -Как зачем? Это произведение искусства. Клянусь. И Галке нравится. -Как таможенники не отобрали? -Я же не в руках его тащил, я спрятал. -Куда? Ведь не иголка... -Я одну даму попросил из нашей лаборатории. Женщин менее тщательно обыскивают.	- Lidka, zakil bat ekarri dut. Kautxuzko zakila, filigrana bat. Ene! Non sartu da? Galkak beste nonbait ezkutatuko zuen. - Zertarako behar duzu zuk hori? - Nola zertarako? Hori artelan bat da. Zin dagit. Galkari ere gustatzen zaio. - Aduanan nolatan ez zizuten kendu? - Ez nuelako eskuetan ekarri. Ezkutatu egin nuen. - Non bada? Ez baita jostorraz bat... - Gure laborategiko dama bati eskatu nion ezkutatzeko. Emakumeak zuhurtzia gutxiagoz arakutzen dituzte.
